


ARRETAZ ENTZUN

GIDA DIDAKTIKOA

ikastetxeetan entzute aktiboa
sustatzeko jardueren garapenerako





Arretaz Entzun

Ikastetxeetan entzute aktiboa egin dadin sustatzeko jardueren garapenerako gida didaktikoa.

Lehenbiziko edizioa: **2020**

© **Educo**

Baimenduta dago lan hau osorik edo zati batez erreproduzitzea, edozein dela bitartekoa edo prozedura, betiere iturria aipatzen bada eta helburu komertzialik ez badu.

Testuak: Gema Luengo, Montse Bobés, Juanvi Plaza, Miriam Torán, María Millán

Itzulpena: Bakun

Sormen zuzendaritza eta maketazioa: Elena Martí, Anaïs López eta Marina Balenciaga

Ilustrazioak: Eduard Altarriba

Kanpainaren koordinazioa: Juanvi Plaza


Esker onak: Cipó Company-ri, egindako sormen-lanagatik eta emandako ideengatik, bai eta kanpainaren garapenean erakutsitako ardura eta profesionaltasunagatik ere.

Arretaz Entzun materialaren kontsulta egiteko: <https://www.activaescucha.org>

Dokumentu honetan landutako gaiei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, hauek dira harremanetarako helbideak: educo@educo.org edo activaescucha@educo.org



Guri buruz



Educo garapenerako lankidetzaz globalean oinarritzen den GKE da. Hezkuntza eta haurren babesa ditu helburutzat eta 800.000 neska-mutiko baino gehiagok parte hartzen duten proiektuak lantzen ditu 13 herrialdetan.

Educok, azken urteotan, bere jarduerak gehitu egin ditu **Espainian, haurren ongizateari eta eskubideei buruzko gaietan erakunde garrantzitsua bihurtuz.**

Haurren egoeraren inguruko ikuspuntu globala daukagu eta **ikerketarekin, parte-hartzearekin, eragin politikoarekin eta herritarren mobilizazioarekin lotutako ekintzak** bultzatzen ditugu.

Gure lanaren **funtsa neska-mutikoei eta nerabeei laguntzea da**, tratatu oneko eta aldaketara bideratutako giroak sustatuz indarra har dezaten, indarkeriarik gabeko inguruetan haien eskubideak bete daitezen, eskubide horiek haiek aintzat har ditzaten eta **herritartasuna aktiboki lantzen duten pertsona gisa haz daitezen**. Hori guztia **ikastetxeen, gizarte erakundeen, administrazio publikoaren eta haurren aldeko eta lankidetzako plataformen eskutik, baita haurrekin lotutako beste entitateen bitartez ere.**

Kanpainaren abiapuntua: neska-mutilei arretaz entzutea...

Educo 2015. urteaz geroztik ari da haurren aurkako indarkeriari buruzko Bazen behin ahots bat (“Érase una Voz”, jatorrizkoa) ikerketa-prozesua garatzen; proiektu horretan 10 urtetik 15 urtera bitarteko neska-mutikoek hartu dute parte, bai azterlan-fasean eta bai emaitzak jakinarazteko fasean, Haurren Aholku Batzorde bat osatuta. Talde hori izan da jarduera guztien eragilea. Bileretako batean, zera izan zuten eztabaidagai: helduek zergatik ez dituzten aintzakotzat hartzen beren salaketak, eskubideen urraketari buruzkoak, oro har, eta haurrenganako indarkeria-motei buruzkoak, bereziki. Neska-mutiko horien arabera, erantzuna argi dago: “helduek entzun entzuten dute, baina ez dute arretaz entzuten”.

Hala, ikerketaren emaitzak aztertuta, ondorio nagusietako bat atera zuten: **arretaz entzutea ezinbesteko baldintza da, neska-mutikoak aintzakotzat hartuko badira eguneroko bizitzan dituzten arazoetan, familian, auzoan zein ikastetxean, eta, maila orokorrago batean, haurrei buruzko politiketan**. Ondorio hori abiapuntu hartuta, galdera bat sortu da: nola entzun behar zaio mutiko bati edo neskato bati? Berez entzutearen eta arretaz entzutearen arteko aldeez hizketan eta iritzia ematen aritu diren neska-mutikoek adierazi dute arretaz entzutea beste pertsona bat esaten ari denari adi eta arreta jarrita entzutea dela. Horrek esan nahi du arretaz entzuteko hitz egiten ari den pertsonarenganako jarrera egokia eta interesa erakutsi behar dela. Horrezaz gain, garrantzi handiko hiru alderdi nabarmendu nahi ditugu: **ongizatea, errespetua eta afektua**.

 **Arretaz entzutea ezinbesteko baldintza da, neska-mutikoak aintzakotzat hartuko badira eguneroko bizitzan dituzten arazoetan**

Baina... entzuten al diegu benetan arretaz **neska-mutikoei eta nerabeei**? Esate baterako, COVID-19 gaitzak eragindako krisian..., entzun al ditugu haien ahotsak? Merezi bezala hartu al ditugu aintzat, haiek behar bezala informatzeko eta haien sentimenduei, arazoei, ideiei eta proposamenei jaramon egiteko? Hezkuntzaren alorretan jarduteko moduak berregiten ari diren egungo egoeran, uste dugu ezinbestekoa dela haiei arretaz entzutea.

Arretaz edo aktiboki entzuteko jarrerak berekin dakar, oro har, gure solaskidearen ongizatearekiko interesa edukitzea: entzuten ari gatzazkion pertsonak bere burua babestua eta aintzakotzat hartua sentitzea, gure entzuteko jarrera eta prestasunagatik. Zer gertatzen zaion, zer pentsatzen

duen eta nola sentitzen den jakin behar dugu, bai eta berarekin zer jarrera izan behar dugun ere, berak espero duena bete dadin, hau da, berak senti dezan benetan arretaz entzuten ari gatzaizkiola eta aintzakotzat hartzen dugula. Errespetua funtsezkoa da, edozein dela ere adina, generoa, jatorria... Eta afektua ezinbestekoa: trebetasuna behar da arretaz entzuteko, egintza berezia baita, afektuzkoa, maitasunezkoa, samurtasuna erakustekoa. Arretaz entzun ezean, ez dago elkarriketarik. Elkarriketarik gabe ezin da elkarlanean jardun, ezin da gizartean aurrerabiderik lortu.

Neska-mutikoei eta nerabeei arretaz edo aktiboki entzungo badiegu, orain artean aipatu ditugun alderdi horiek guztiak hartu behar dira kontuan, eta, horrezaz gain, **haien gaitasunak ere aintzat hartu**. Haiek errespetatzeak esan nahi du alde batera uztea aurreiritziak eta ez gutxiestea haien iritziak, askotan uste baitugu adinagatik edo dibertsitateagatik ez dutela gaitasunik zer gertatzen zaien interpretatzeko edo ez dakitela nola konpondu sortzen zaizkien arazoak. Neska-mutikoen eta nerabeen eskatu digute arretaz eta adi entzuteko zer esaten duten, merezi duten begirunearekin, errespetuz, maitasunez, paternalismorik gabe eta

Haiek errespetatzeak esan nahi du alde batera uztea aurreiritziak eta ez gutxiestea haien iritziak, askotan uste baitugu adinagatik edo dibertsitateagatik ez dutela gaitasunik

beren eskubideak zein gaitasunak aintzat hartuta. Berentzat denbora hartzea, hor egotea eta “irekiak” izatea eskatzen digute, haiekin batera lankidetzan aritzeko, eta, hartara, guztiontzako gizarte bidezkoago baten alde borroka egiteko. Horregatik guztiagatik abiarazi dugu “Arretaz Entzun” izeneko mobilizazio sozialeko kanpaina.

Educon geure buruari galdetu diogu ea zer den neska-mutikoei eta nerabeei ARRETAZ ENTZUTEA edo ENTZUTE AKTIBOA egitea. Gida honetan zenbait oinarri teoriko eta proposamen praktiko bildu ditugu, xedetzat hartuta arretaz entzutea hobetzea hezkuntza-testuinguruan, jakitun izanik oraindik ere ikasten jarraitzen dugula, neska-mutikoen zer esan nahi diguten arretaz entzunez.



Aurkibidea

Arretaz entzutea, haurren eskubideak gauzatu daitezen	8
Entzute aktiboa gizarte-hezkuntzaren alorrean	10
Entzute aktiboa, helduzentrismoari aurre egiteko	13
Entzute aktiboa, gatazkak konpontzeko oinarrizko elementua	14
Entzutea, komunitatean parte hartzeko eta demokrazia lortzeko oinarrizko elementua	15
Ondorioak	17
Zer du xede kanpainak? Nori bideratuta dago?	18
Kanpaina, helburu gisa eta baliabide gisa	19
Zer metodologia proposatzen dugu?	21
Faseen deskribapena	22
Proposatutako jardueren eta ekintzen eskema	28
Proposatutako jardueren deskribapena	31
1. fasea - Informazioa eta Entzute Klubaren antolaketa	31
▪ 1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	31
▪ 1.B Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea	32
▪ 1.C Web-plataforman alta ematea	33
Zeharkako fasea - Motibazioa eta komunikazioa	34
▪ T.A Entzutearen artea ereingo dugu!	34
▪ T.B Entzuten entrenatuko gara!	34
▪ T.C Ikusi, irakurri eta entzun!	36
▪ T.D Artearen bidez entzuten dugu	37
▪ T.E Entzuteko txokoa, partekatzeko lekua	38

2. fasea - Diagnosia eta analisia	39
▪ 2.A Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea	39
▪ 2.B Entzun diezaguten... sortu egin behar da	39
▪ 2.C Askatasunez hitz egitea, entzuteko konpromisoa hartzea	40
▪ 2.D Aldaketak planifikatzeko mapa	40
3. fasea - Ekintza	41
▪ 3.A Entzute aktiborako dekalogo	41
▪ 3.B Besteek entzun diezaguten, ez da beharrezkoa oihu egitea	41
▪ 3.C Testu idatzien bidez entzun diezaguten, batzuetan idatzi baino zerbait gehiago egin behar da	42
Zeharkako fasea - Ebaluazioa	43
▪ TE. A Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez. Oraindik ere egiteko daukaguna	43
▪ TE. B Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa	44
▪ TE. C Amaierako ebaluazioa	44
4. fasea - Amaiera, ospakizuna eta ikasitakoa partekatzea	45
▪ 4.A Kale-ekintza/komunikazioa	45
▪ 4.B Jende guztiak entzun diezagun	45
Kanpainaren beste baliabide batzuk	46
Arretaz Entzun kita	46
Online plataforma	47
Bibliografia eta webgrafia	48
Artikuluak eta saiakera-liburuak	48
Dinamika, jolas eta jardueri buruzko argitalpenak	49
Helbide interesgarriak Interneten	49

Arretaz entzutea, haurren eskubideak gauzatu daitezzen



“Entzun ala arretaz entzun,
ez dira gauza bera”

Entzuteko gaitasuna du oinarri arretaz entzuteak; baina berez entzutea zerbait biologikoa da, eta arretaz entzutea edo entzuten jakitea osagai kultural batekin lotzen da. Entzuteak belarriari bakarrik eragiten dion prozesu bat da, eta arretaz entzuteak, berriz, berekin dakar pentsamendua, memoria, ideien arteko lotura, munduaren ezagutza, nortasuna, etab.

Oro har, entzutea egintza pasibotzat jotzen dugu, hau da, pertsona batek informazioa jasotzen dueneko egintza pasiboa. Baina arretaz entzutea prozesu aktibo bat da, eta garrantzi handiko elementutzat hartzen da pertsonen arteko komunikazioan. Izan ere, erabat lotuta dago **trebetasun sozialekin eta enpatiarekin**.

Komunikabide bat entzutea (irratia, telebista, Internet...) noranzko bakarreko egintza bat da. Baina **arretaz entzutearen** edo entzute aktiboaren xedea ez da bakarrik mezuaren edukia ezagutzea, baizik eta entzuten ari gatzaizkion pertsonaren sentimendua edo jarrera ere ezagutzea. Beraz, jarrera, arreta eta sentsibilitatea beharrezkoak dira, adierazten digutena

Benetako entzute aktiboa egiteko, komunikazio-mota bati baino gehiagori erreparatu behar zaio. Besteak beste, aurpegierei, gorputz-jarrerari, arnasteko moduari eta esku zein begien mugimenduari

interpretatzeko. Horretarako, tankera honetako galderak egin behar dizkiogu geure buruari: Zer helarazi nahi digu pertsona honek? Zer-nola eragiten dio? Galdera horiei erantzuteko ezinbestekoa da kontuan hartzea komunikazio oro ez dela hitzezkoa.

Benetako entzute aktiboa egiteko, komunikazio-mota bati baino gehiagori erreparatu behar zaio. Besteak beste, aurpegierei, gorputz-jarrerari, arnasteko moduari eta esku zein begien mugimenduari. Ahotsa ere oso adierazgarria da; izan ere, ahots batzuek zalantza adieraz dezakete, eta beste batzuek tonu desberdinak dituzte, edota enfasia adierazten dute, edo marmarra besterik ez dira. Eta arretaz edo aktiboki entzuten ari garenean,

gu ere solaskideari komunikatzen ari gara. Adibidez, arretaz entzuten denean, ez da epaitzen edo ebaluatzen, adi erreparatzen saiatzen da, galderak egiten dira, errespetuz ematen da iritzia, beste pertsonaren hitzak erabiltzen dira erantzuteko. Alabaina, **aniztasun kulturala ere kontuan izan behar da**. Esate baterako, testuinguru kultural jakin batean begietara zuzenean begiratzea errespetuaren seinale izan daiteke, eta beste batean, ordea, guztiz kontrakoa, eta gaizki-ulertuak, deserosotasuna eta mesfidantza eragin dezake.

Aktiboki entzuten ikasteko ezinbestekoa da praktikatzea, eta, batez ere, norberaren jarrerak aldatzea. Nahitaezkoa da solaskidearekiko interes zintzoa edukitzea eta norberaren mundu-ikuskera alde batera uzteko jarrera hartzea. Hau da, jarrera irekia izatea bai interpretatzeko eta bai bestearen larruan jartzeko, **eta onartzea agian geure hasierako pentsamendua aldatu egin daitekeela**. Entzute aktiboaren baldintza etikoetako bat solaskidea **errespetatzea** da, eta errespetatzea nahiz eta haren ideiak eta pentsamenduak denon ongirako kaltegarriak izan. Ideia guztiak ez dira modu berean errespetatzeko modukoak, baina **bereizi egin behar dira hizketan ari den pertsona eta haren hitzen edukia**. Halako egoeretan, solaskidearekin hitz egin daiteke, gure oinarritzko askatasunak eta eskubideak defendatze aldera.

Entzute aktiboa egiten jakitea oso elementu garrantzitsua da **indarkeriarik gabeko komunikazioan**. Zerikusia du enpatiarekin, hau da, besteek zer ikusten, zer sentitzen, zer behar duten eta zer eskatzen diguten entzuten jakitearekin, lau osagai hauek kontuan hartuta: gertaerak aztertzea; aztertutakoaren edo beste pertsonak esandakoaren aurrean zer sentitzen dugun jabetzea; sentitzeko modu horrekin lotuta zer premia ditugun hautematea; eta beste pertsonari eskaera edo ekarpena egitea, bataren zein bestearen bizitza aberasteko, epaitu gabe.



Entzute aktiboa gizarte-hezkuntzaren alorrean



Komunikaziorako gaitasunak bere baitan hartzen ditu, besteak beste, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko trebetasunen garapena. Horiek guztiak funtsezko elementutzat hartzen dira hezkuntzaren alorrean. Baina hezkuntzan, oro har, transmisiozko pedagogia gailentzen da; hau da, noranzko bakarrekoa: hezitzaileak hitz egiten du, eta gainerakoek, ikasleek, entzun egiten dute. Bestalde, **pedagogia interaktiboak** hau du ezaugarri nagusia: entzute aktiboan, elkarriketan eta ekintza kolektiboan oinarritutako parte-hartzea.

Pedagogiari dagokionez, zenbait egilek hezkuntzaren hainbat ikuspuntu eta testuinguru kontuan hartuta aztertu dute entzutearen garrantzia. Hizkuntzalaritzaren alorrean, **entzute konprentsibo edo adikorra** zer den definitzeko eta aztertzeko azterlanak egin dira, eta, bereziki, zera aztertu dute: **nola eraikitzen diren esanahiak entzulearengan, igorlearen mezuak interpretatzeko.**

Entzutearen pedagogia terminoa Italian sortu zen, Reggio Emilia eskualdeko eskoletako komunitatearen testuinguruan, Loris Magaluzzi irakasleak sustatuta, besteak beste. Proposamen horren arabera, “entzute anitza” ekintza bat da, komunitatea, irakasleak, neska-mutikoak eta familiak inplikatzeko dituenak. Nork bere buruari eta elkarri entzun behar diogula dio. Barne-entzuketaren bidez, norberaren ideiak eta hausnarketak aberastu egiten dira, eta, aldi berean, besteei entzunez, ideia eta hausnarketa horiek aldatu egiten dira, ideiak konparatu, trukatu eta birformulatu egiten ditugulako, eta horrek guztiak erabaki demokratikoagoak eta erabakiak taldearen interesak kontuan hartuta hartzea bultzatzen du. Horrezaz gain, behaketa eginez

eta hezkuntza-alorra aztertuz, gertaerak interpretatzen dira, eta, horretarako, beharrezkoa da inguruan ditugun pertsonenganako ekarpena egitea, entzundakoaz egindako interpretazioa jakinarazteko, eta gaizki interpretatu ote den jakin ahal izateko. Horrenbestez, **etika kontua** da; izan ere, ezinbestekoa da entzun nahi izatea eta entzundakoa interpretatzeko analisi bat egitea, eta ez hori bakarrik, jarrera irekia izan behar baita ziurgabetasunak onartzeko, eta gustuko ideiak, ezagutzak, kliseak eta tradizio kulturalak alde batera uzteko. **Entzutea ikaskuntza-harreman ororen oinarria da**, truke horren ondorioz eskuratzen baitira ezagutza berriak eta trebetasun berriak.

Entzuteak beste pertsona batzuekiko komunikazioa ahalbidetzen du, nahiz eta pertsona horiek oso bestelakoak izan. Oro har,

ez da aintzat hartzen aniztasuna; ez da aintzat hartzen desparekotasuna dagoela, talde batzuk pribilegiozko egoeran daudelako eta beste

talde batzuk isilarazi egiten direlako eta ez zaielako entzuten. Entzuteak solaskidearekiko dugun botere-posizioaz hausnartzera bultzatzen gaitu. Adibidez, generoari, adinari eta kulturartekotasunari dagokionez: gizonezkoek emakumeekiko, zuriak beltzekiko eta helduek haurrekiko. Desberdintasun horiek, askotan, hizkuntzaren edo jarduteko moduaren bidez azaleratzen dira. Hori aldatzeko nahitaezkoa da jarrera irekia edukitzea, gure pribilegioez, aurreiritziez eta estereotipoen jabetzea, eta ustez jakin badakigun hori ezbaian jartzea. Horrek guztiak praktikan esan nahi du jarrera irekia edukitzea, beste ikuspuntu batzuk baloratzeko eta beste pertsona batzuen mezuak interpretatzeko eta zentzua emateko. Entzutea harreman etiko bat da, eta desberdintasunekiko errespetua du oinarri (adina, sexua, generoa, etnia, kultura, nazionalitatea dibertsitate funtzionala, etab.). Kontua ez da modu pasiboan entzutea, pentsamendurik gabe, jada badakiguna errepikatzeke. Oso garrantzitsua da topaketa, elkarrengan eragiteko jarrera irekia eduki beharreko une hori, esperimentatzeko une hori, beste pentsatzeko modu bat eskuratzeko eta ekarpena egiteko une hori.



Ezinbestekoa da, halaber, gune bat, testuinguru egoki bat, aske sentitu eta emozioak adierazteko konfiantza emango duena, hizkuntzen adierazpena agertu eta bi aldean artean benetako solasaldia ahalbidetuko duena

Entzuteak emozioak sorrarazten ditu, eta besteen emozioek eragina dute entzute horretan. Ez da belarriekin soilik entzuten, baizik eta zentzumen guztiekin; izan ere, **askotariko hizkuntzak eta kodeak hauteman** beharko lirateke, isiltasunak eragiten dituenak barne. Horretarako, ezinbestekoa da besteak hobeto ezagutzeko nahia eta sentsibiltatea izatea, bai eta entzun diezaguten nahi izatea ere. Pertsona guztientzat da aberasgarria, bai hitz egiten duenarentzat eta bai entzuten duenarentzat, agerikotasuna, garrantzia eta legitimitatea ematen baitu, besteak beste. Horrek berekin dakar jakin-

nahia, zalantzak argitzeko beharra, ikastea, galderak egitea, etab. Ezinbestekoa da, halaber, gune bat, testuinguru egoki bat, **aske sentitu eta emozioak adierazteko konfiantza** emango duena, hizkuntzen adierazpena agertu eta bi aldeen artean benetako solasaldia ahalbidetuko duena.

Paulo Freire pedagogoa –hezkuntzaren esparru formaletik haragoko herri-hezkuntzaren erreferentea– **ikaskuntza dialogikoa** esaten zaionaren sustatzailea da. Elkarriketa oinarri duen pedagogia baten defendatzailea da, zeinetan hitzek bi dimentsio dituzten aldi berean: hausnarketa eta ekintza. Konpromiso soziala, askatasuna, hausnarketa kritikoa, apaltasuna eta maitasuna balioesten ditu Freirek hezkuntza-ekintza dialogikoan. Eta alderdi horretan entzute aktiboa funtsezko osagaia da. Zorrotz kritikatzin ditu jarrera paternalistak eta interes partikularrak edo alderdikoiak xede dituzten jarrerak. Hezitzaileen eta ikasleen arteko harreman horizontalen aldekoa da, aintzat hartuta inguruan duten errealitatea aztertzeke ikerketataldea direla, eta errealitate hori elkarrekin deskodetu behar dutela, hausnarketaren eta elkarrekintza dialogikoaren bidez, gero errealitate hori eraldatzeko.

Erabiltzaileak terminoa erabili ordez, edukia taldean sortzea xede duten parte-hartzaileak jarrita, eta elkarrenganako ekintzak solasaldi gisa sustatuta, bitarteko digital baten bidez arretaz entzuteko aukera ematen da

Ikaskuntza dialogikoaren barruan, **neska-mutikoentzako filosofia-proiektuak** nabarmentzen dira. Proiektu horietan, komunitate dialogikoan hausnartzea eta entzute aktiboa funtsezko elementua da solasaldi filosofikoa edukitzeko. Galdera filosofiko bat abiapuntu hartuta sortzen da pentsamendu bat, eta pentsamendu hori komunitatean partekatzen da, ezagutza-trukea eragiteko eta beste ezagutza bat lortzeko. Prozesu horretan hiru pentsamendu sustatzen dira: kritikoa (jasotako informazioa aztertzen duena), begirunezkoa (solaskidea errespetatzeko) eta sormenezkoa (ideia berriak gauzatzen direnean sortzen dena). Solasaldi filosofikoaren xedea ez da erabakiak hartzea, baina halako solasaldien bidez, eraikuntza kolektiborako behar

den arrazoibidea sustatzen da, eta horrek bide ematen du erabakiak hobeto hartzeko eta komunitate guztiak adostutako prozesuak abiarazteko.

Informazioaren teknologien alorrean, elkarrengaitzeko pedagogiak bitarteko digital baten bidez arretaz entzuteko aukera ematen du. Esate baterako, erabiltzaileak terminoa erabili ordez, edukia taldean sortzea xede duten parte-hartzaileak jarrita, eta elkarrenganako ekintzak solasaldi gisa sustatuta. Kontua da ez izatea soilik begiratzeko, irakurtzeko, entzuteko, kopiatzeko, etab. Kontua ez da soilik kontsulta egitea, baizik eta edukiaren ekoizpenean parte hartu ahal izatea eta mezu bat aldatzeko aukera izatea, xedetzat hartuta beste pertsona batzuekin batera eduki horien askotariko esanahiak ekoiztea eta partekatzea. Isiltasun birtuala baldin badago, garrantzitsua da aztertzea ea eten digitalik gertatzen den, eta, beraz, aztertzea ea entzunak izateko aukera ez dutenak baztertu diren eta komunitatean beren ideien ordezkariarik ez duten.



Entzute aktiboa, helduzentrismoari aurre egiteko

Helduen, neska-mutikoen eta nerabeen arteko solasaldi-prozesu bat abian jartzeak, benetako entzute aktiboa oinarri hartuta, **protektionismoari aurre egiten eta autonomia sustatzen laguntzen du.**

Askotan pentsatzen dugu neska-mutikoei hitza hartzen uzteak haiei entzutea eta solasaldia sustatzea dakarrela. Neska-mutikoei hitza hartzen uztea botere-ekintzat har daiteke: nik, helduak, hitz egiteko aukera ematen dizut zuri, adingabe horri. Eta neska-mutikoak hizketan ari direnean, ez du esan nahi entzute aktiboko berdintasunezko solasaldi bat denik. Sarritan, galderei erantzuteko mintzaldiak dira, ideiak trukatzeko aukerarik gabekoak. Entzute aktiboa oinarri duen solasaldia sortuko bada, ezinbestekoa da neska-mutikoek hitz egiteko **askatasuna** edukitzea, elkar errespetatzea, hausnarketa, desadostasuna onartzea, seriotasuna, autoestimua, arreta, egitasuna, arrazoiketa eta harreman pertsonal onak edukitzea.

Neska-mutikoek eta nerabeek gustuko dute haiei berei eragiten dieten arazoak konpontzen laguntzea. Horrexegatik da garrantzitsua haien iritzia entzungo direla eta aintzakotzat hartuko direla bermatzea. Baina, askotan, helduok ez ditugu haien gaitasunak kontuan hartzen, edo haiekiko kontrola eduki nahi izaten dugu. Hona hemen zer den **helduzentrismoa: helduen nagusitasun-ikuspegia**, pribilegioen eskuragarritasuna, eta adin-talde desberdinen arteko botere-aldea. Berdintasunik eza oinarri duten harreman horiek **heldutismoa esaten zaion jarduteko moduaren bidez** egiten dira ageriko. Kontzeptu horrek neska-mutikoen eta nerabeen gaitasunak mugatzen edo ezbaian jartzen dituzten jokaerak, ekintzak edo hizkuntzak hartzen ditu bere baitan, eta mugatzen edo ezbaian jartzen dituzte urte gutxiago dituztelako soilik. Mezu heldutistak oso ohikoak izaten dira, hala nola tankera honetako esaldietan: “txikiegia zara ulertzeko”. Heldutismoa da neska-mutikoei eta nerabeei ez entzutearen kausetako bat. Horri aurre egiteko ezinbestekoa da **apaltasuna, aintzakotzat hartzea eta errespetua**. Beharrezkoa da, halaber, helduek ikastea lagun egiten, bideratzen, entzuten, mugak elkarrekin ezartzen, negoziatzen, hitz egiten, hezten eta harremanak edukitzeko modu berriak izaten neska-mutikoekin zein nerabeekin.

Entzute aktiboa, gatazkak konpontzeko oinarrizko elementua



Neska-mutikoek eta nerabeek subjektu aktiboak izan nahi dute haiei berei eragiten dieten arazoak konpontzen, hala nola beren gizarte-hezkuntzako ingurunean berdinen artean gertatzen den indarkeriarekin lotutako arazoak konpontzen. Entzute aktiboak berebiziko garrantzia du eskola-bitartekaritzako prozesuetan. Horren adibide dira **praktika errestitutiboak**; hau da, honako hauek balioesten dituztenak: parte-hartzea, erantzukizuna, sentimenduak zein beharrak adieraztea eta inklusioa, bai eta indarkeriazko ekintzak baztertzea ere, baina ez pertsonak. Balio horiek ongizateko eta justiziako sentimenduak bultzatzen dituzte komunitatean. Eskola-bitartekaritzan, ikuspegi errestitutiboak justizia errestitutiboan du jatorria, zeinetan garrantzia ematen zaion eragindako kaltea konpontzeari eta harremanak berrezartzeari, zigorra ezartze hutsaren ordez. Praktika hori, halaber, prebentzio-modu bat da, gatazkak edo arazoak berriro gertatzea eragozten baitu. Praktika errestitutiboak baliatzeko, beharrezkoa da komunitate guztiak parte hartzea eta haiek guztiek harremanak sendotzen laguntzea; izan ere, arazoak konpontzean erantzukizunak hartzen dira, hartutako erabakien kontu emateko, eta parte hartu duten pertsonen arteko harreman positiboak bultzatzen dira.

Praktika errestitutiboak aplikatzeko tresnetako bat **entzuteko topaketak edo bilerak** antolatzea da. Saio horietan ez da sakontzen parte hartzen duten pertsona guztiek jada ezagutzen dituzten gertaeretan, baizik eta gertaera horiek pertsonen eta haien sentimenduen nola eragin

dien aztertzen da. Horrek lasaitasuna eta ongizatea berreskuratzen laguntzen duen inpaktu emozionala sorrarazten du. Parte-hartzaileek aktiboki entzun dezaten, solasaldia abiarazteko galderak egiten dira; hain zuzen ere, honetara bideratuta daude galdera horiek: gatazkaren unean eta gatazkaren ondoren gertatutakoak izandako eraginei buruzko sentimenduak eta pentsamenduak partekatzea. Solasaldiaren bidez, beste gai batzuk ere azaleratzen dira: bizikidetzak baketsua berriro ere lortzeko zer behar den eta zer egin daitekeen. Prozedura hori eta praktika tradizionala kontrajarriak dira, azken hori erruduna identifikatzean, gertaerak ikertzean, urratutako araua aztertzean eta dagokion zigorra erabakitzean datza eta. **Azken batean, eredu errestitutiboak entzute aktiboa sustatzen du, bai eta sentimenduak eta beharrak adieraztea eta empatia ere,** gertaerek pertsonei nola eragiten dieten ulertzeko. Gainera, prozesu hori eraldatzailea izan dadin, xedetzat hatzen da aldaketa-prozesua irudikatzea, alde zurretik premiak hautemanda, eta adostutakoa betetzeko bitartekoak, guneak eta denborak zehaztuta.

Entzutea, komunitatean parte hartzeko eta demokrazia lortzeko oinarritzko elementua

Entzutea **Haurren eskubideei buruzko konbentzioan** (1989) aipatzen da. Honela dio **12. artikulua**: «1. Estatu alderdiek haurrei eskubidea bermatuko diete, askatasunez euren iritzia emateko, haurrengan eragina duten gai guztien inguruan, betiere, haurrak gai badira iritzi hori askatasunez emateko; haurren iritzia behar bezala kontuan hartuko dira, haurren adinaren eta heldutasunaren arabera. 2. Horretarako, haurrei modu berezian emango zaie aukera, eurek esan beharrekoa entzun dadin, haurrei buruzko prozedura judizial eta administratibo guztietan».

Entzunak izatea eskubide bat da, eta ezinbesteko baldintza ere bai praktika demokratikorako, hau da, neska-mutikoei parte hartu dezaten eta herritartasun aktiboa balia dezaten. 1969. urtean, Sherry Arnsteinek “A ladder of citizen participation” (Herri-partaidetzaren eskailera) argitaratu zuen. Harrezkero, dozenaka eredu alternatibo proposatu dira partaidetzaren dimentsioak deskribatzeko eta sailkatzeko. Haurren parte-hartzeari dagokionez, eredu ezagunenak Hart, Casas eta Trilla & Novella egileek proposatu dituzte. Proposamen horietako guztietako mailaren batean aipatzen da neska-mutikoei eta nerabeei entzutea, bai kontsultarako (zenbait gairi buruzko iritzia ematea eskatzen zaie, proposamenak egitea eta baloratzea ere bai), eta bai, zenbaitetan, konpromiso handiagoa hartzeko, aintzakotzat hartu daitezkeen eta erabakiak hartzen alderdi guztiek parte hartu dezaten. Parte-hartzearen maila horietan guztietan baloratu behar da nola ari den gauzatzen entzute-prozesua, eta nola egin dezaketen helduek benetako entzute aktiboa eta hurrek esaten dutena aintzakotzat hartu.

Entzuteko jarrera hartu behar da, demokrazia sendotuko badugu. Jarrera hori hartzea jokabide etiko eta politikotzat har daiteke. Balio demokratikoak eta herritarren parte-

**Ezinbestean ikasi
behar da besteak
eta denon ongia
errespetatzen,
harremanak edukitzen,
denetariko iritziak
baloratzen,
konpromisoa hartzen
eta gatazkak modu
baketsuan konpontzen**

hartzea oinarri dituen gobernantza onak berekin dakar zenbait mekanismo abian jartzea etengabeko entzute aktiborako, bai toki-eremuan eta bai maila globalean zuzenean eragiten dieten gaitan. **Denbora, elkarguneak eta bitartekoak** behar dira, jakiteko zer pentsatzen duten, zer iritzi duten eta zer sentitzen duten, eta, hala, baliabideen kudeaketan eta erabakiak hartzean gertutasuna ahalbidetuko duen solasaldia lortzeko. Elkarrekintza hori kontsultarako izan daiteke, edo elkarrekintza-maila handiagoa ere izan daiteke, entzute aktiboa bere baitan hartzen duten sare edo mekanismo parte-hartzaileagoak jarrita. Tokiko foroek, lantaldeek, herritarren batzordeek eta haurren batzordeek eta antzekoek aukera ematen dute edukiak zein ekintzak taldean sortzeko.

Hezkuntzaren testuinguruan, demokrazia **ez da ikasten testu baten bidez edo irakaslearen ikasgai baten bidez**, baizik eta parte hartzeko benetako eremu baten bidez. Ezinbestean ikasi behar da besteak eta denon ongia errespetatzen, harremanak edukitzen, denetariko iritziak baloratzen, konpromisoa hartzen, gatazkak modu baketsuan konpontzen, etab. Horretarako, berebiziko garrantzia du zenbait trebetasun garatzea, hala nola enpatia, gizarte-kontzientzia hartzekoa, solasaldirakoa eta komunikazio asertiborakoa. Entzute aktiborako gaitasuna funtsezkoa da solasaldian, eta aurreko kapituluetan adierazitako inplikazio guztiekin gauzatu beharko litzateke. Erronka handia da entzute aktiboa egitea parte hartzeko prozesuetan, bai neska-mutikoen artean eta bai neska-mutikoen eta helduen artean. **Jarrerak eta gaitasunak bi aldeek landu behar dituzte**, hausnarketa eta praktika oinarri hartuta.



Ondorioak

Orain arte azaldutako argudioak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke benetako entzute aktiboa eginez gero, ...

- ... autoestimua indartzen dela
- ... hizkuntza estimulatzeko dela
- ... bi noranzkoko komunikazioa bultzatzen dela
- ... informazio garrantzitsua lortzen dela
- ... ezagutza eta erreferentzia kulturalak zabaltzen direla
- ... pentsamendu kritikoa, begirunezkoa eta sormenezkoa sustatzen dela
- ... ikasi egiten dela
- ... adiskidetasuna eta harreman onak lantzen direla
- ... berdintasunerako eta botere-banaketarako bidea bultzatzen dela
- ... giro baketsua lortzen dela
- ... erabaki hobeak hartzen direla (norbanakoak eta taldeak)
- ... lankidetzaren lana eta berrikuntza sustatzen direla
- ... bizikidetzaren demokratikoa errazten dela

“ eta haurren eskubideak betetzen laguntzen da”



Osagai horiek guztiak beharrezkoak dira premia eta erantzukizun indibidual zein kolektiboetatik sortzen diren eskubideak oinarri izango dituen herritartasun globala eraikitzeko. Mundu hobe eraikitzen laguntzen dute, neska-mutikoei eta nerabeei aktiboki entzutea oinarri duten tokiko jardunbideen bidez; izan ere, erabakiak hartzen laguntzeko eta denon ongiaren alde jarduteko gaitasuna duen kolektiboa da, munduko gizarte guztietan. Ezinbestekoa da helduek, neska-mutikoei, nerabeei, gazteek... berdintasunezko esparru batean entzute aktiboa egitea. Arretaz Entzun kanpainaren bidez ikaskuntza kolektiboa lortzeko bideari ekitea espero dugu, hori baita modua gizarte **demokratikoagoak**, baketsuagoak, bidezkoagoak, berdinzaleagoak, berritzaileagoak eta adimendunagoak (arrazoimenaren eta emozioen ikuspuntutik) lortzeko.

Zer du xede kanpainak? Nori bideratuta dago?

Arretaz Entzun kanpainaren helburu nagusia da ikusaraztea zeinen garrantzitsua den benetan entzutea, eta bai neska-mutikoen eta nerabeen artean eta bai haien eta helduen artean entzute aktiborako guneak sortzea. Entzutearen garrantzia ikusarazteko, kanpainako protagonisten ekarpenak baliatu ditugu, horretarako sortuta neska-mutikoei eta nerabeei arretaz entzuteko konpromisoa duten komunitateak.

Hortaz, hartzaile nagusiak neska-mutikoak berak dira batez ere, bai eta beren hezkuntza-komunitatean dituzten helduak ere: irakasleak, familiak, irakasle ez diren langileak, eta inguruan dituzten gizarte-elkarte eta -erakundeak. Horrezaz gain, garrantzi berezia duten beste eragile batzuk inplikatzeko ere saiatuko da kanpaina, hala nola komunikabideak eta administrazio-publikoak, xedetzat hartuta haurren eskubideak jakinaraztea eta eskubide horiek gauzatu ahal izatea.

Gida hau, nagusiki, irakasleei eta prozesuan parte hartzen duten hezkuntza-taldeei bideratuta dago, baina kontsultarako tresna gisa ere baliagarria izan daiteke hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten pertsonentzat. Material hau, halaber, material gehiagorekin osatuko da, eta material hori eskuragarri egongo da jende guztiarentzat, denek izan dezaten edukien berri, bai eta jardueraren bat abian jartzeko ere, web-plataformaren baten bidez eta Arretaz Entzun kitaren bidez.



Kanpaina, helburu gisa eta baliabide gisa

Arretaz Entzun kanpainako jarduerak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako curriculum-arloekin daude lotuta, batez ere Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoekin. Hala eta guztiz ere, goragoko mailetan eta beste arlo batzuetan ere egin daitezke, haietara egokituta; izan ere, **propio diseinatu dira belaunaldien arteko prozesu parte-hartzailean egiteko** (Bigarren Hezkuntzako goragoko mailak, Batxilergoa, Oinarrizko Lanbide Heziketa, eta hezkuntza ez-formala). Horrezaz gain, kanpainaren helburuak zein edukiak erabat lotuta daude eguneroko bizitzarekin eta hezkuntza-komunitate oroko bizikidetzaren onarekin. Arretaz entzutea funtsezko elementua da komunitateko kideen artean trebetasun sozialak lantzeko eta komunikaziorako gaitasunak eskuratzeko, hala ikasleentzat nola helduentzat.

Ikastetxeetan entzute aktiboa bultzatzeko, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleentzako jarduerak diseinatu ditugu

Proposatutako edukiak eta metodologia, halaber, ikastetxeetan edo hezkuntza-erakunde laguntzaileetan jada abian dauden proiektuetakoen osagarriak izan daitezke, edo baliagarriak laguntza-tresna gisa, bai ikasgelako jardueretan eta bai ikastetxearen proiektuan. Arretaz entzutea funtsezkoa da mota askotako proiektutan; besteak beste, arlo hauek lantzea xede duten proiektuetan: hezkuntza emozionala, hezkuntza-ikerketak edo hezkuntza-jarduerak, ikaskuntza-komunitateak, haurrentzako filosofia, ikaskuntza-zerbitzua, haurren batzordeak, eskola-bitartekaritza, eta haurren babeserako eta tratatu onerako politikak. Kanpainan proposatutako jarduerak lagungarriak eta osagarriak izan daitezke, halaber, ikasgeletan bilerak, solasaldiak eta eztabaidak antolatze eta balioen arloarekin zerikusia duten jarduerak egiteko.

Taula honetan adierazi dugu zer lotura egon daitekeen kanpainaren edukien eta ikastetxe orotan lehendik dauden proiektu edo jardueren artean.



Arretaz Entzun kanpainak har ditzakeen dimentsioak

Entzutea, harremanen ikuspuntutik

- Hezkuntza emozionala
- Trebetasun sozialak, enpatia eta indarkeriarik gabeko komunikazioaren praktika

Entzute aktiboa, gizarte-hezkuntzako alorraren ikuspuntutik

- Entzute konprentsihoa/adikorra
- Entzutearen pedagogia
- Ikaskuntza dialogikoa
- Elkarreragitearen pedagogia
- Aniztasunaren trataera

Entzute aktiboa, helduzentrismoari aurre egiteko

- Haurren autonomiaren sustapena
- Portaera heldutistik eragozte

Entzute aktiboa, gatazkak konpontzeko eta bizikidetzarako oinarritzko elementua

- Ikuspegi errestauratiboa
- Komunitate-bitartekaritza

Entzutea, komunitatean parte hartzeko eta demokrazia lortzeko oinarritzko elementua

- Eskubideen ikuspuntua (Haurren eskubideei buruzko konbentzioa, 12. artikulua)
- Demokraziarako hezkuntza
- Herritartasun globalerako hezkuntza

Aplikagarria den proiektuen, ekintzen, jardueren eta abarren adibideak

- Hezkuntza emozionaleko proiektuak
- Kulturartekotasuneko eta hezkidetzako proiektuak
- Irakasleen ikerketa/jarduera, beren hezkuntza-jardunean
- Ikaskuntza-komunitateak
- Haurrentzako filosofia
- Informazioaren teknologien erabilera
- Ikaskuntza-Zerbitzua
- Haurren foroak, batzordeak
- Haurren babeserako eta tratu onerako politikak
- Bilera, solasaldi eta eztabaidak ikasgelan
- Lankidetzako jardueren antolaketa (helduak- haur eta nerabeak)
- Solasaldirako eta eskola-bitartekaritzarako topaketak
- Lan-batzordeen antolaketa
- Balioen eta herritartasunerako gaitasunen arloko jarduerak

Oro har:

Komunitatearen eguneroko bizitzan aplikagarria Hezkuntzako eta curriculumak aplikatu beharreko jarduera orotan

Zer metodologia proposatzen dugu?

Arretaz Entzun kanpainak **komunitate-partaidetzaren metodologiaren** aplikazioa du oinarri, eta metodologia hori garatzeko zenbait jarduera-fase zehaztu dira. Fase horietako bakoitzean, hainbat jarduera egitea proposatzen da, eta jarduera horiek parte-hartzaileen interesen arabera planifikatzekoak dira.

Lehenbizi, informazioko eta antolaketako fasea proposatu dugu, landu beharreko gaiarekin zerikusia duten edukiak ezagutarazteko eta “Entzute Kluba” talde eragilea antolatzeke. Talde horrek hartuko ditu erabakiak eta diseinatuko du hezkuntza-komunitatean egin beharreko jardueren ibilbide espezifikoak. Gero, ikasle eta irakasleen ordezkariez osatutako Entzute Klub horrek kanpainaren jarraipena egingo du, eta, horretarako, motibazioko eta informazioko jarduerak antolatuko ditu bere komunitatean, abiapuntuko egoeraren diagnosia egingo du, diagnosi horren emaitzak aztertuko ditu, ekintza-plan bat diseinatu eta abian jarriko du, eta prozesuaren ebaluazioa egingo du, bai eta emaitzen zein ikaskuntzen komunikazioan eta hedapenean izandako inplikazioaren ebaluazioa ere.

ARRETAZ ENTZUN

Proiektuaren faseak



**Hemendik aurrera, koloreei esker zein faseri buruz hitz egiten ari garen jakin dezakezu.*

Faseen deskribapena

1.FASEA

Informazioa eta Entzute Klubaren antolaketa

Kanpainari ekin aurretik, ikastetxeetako irakasleen artean inplikatzeko direnek edo interesa dutenek gida hau balia dezakete, han baitaude jasota entzute aktiboarekin zerikusia duten edukiak eta jarduerak antolatzeko gomendioak. Neska-mutikoz eta irakaslez (edo hezkuntza-komunitatetako beste pertsona heldu batzuek) osatutako talde eragile bat osatzea proposatzen dugu. Talde horrek **Entzute Kluba** du izena, eta hau du helburua: erabakiak hartzea eta hezkuntza-komunitatean egin beharreko jardueren ibilbide espezifiko diseinatzea. Entzute Kluba osatzeko, ezinbestekoa da irakasleek aurretiaz komunikazioko eta hedapeneko ekintzak egitea hezkuntza-komunitatean. Entzute Klubean parte hartuko duten ikasleei dagokienez, hainbat maila eta ikasgelatako ordezkarien talde bat izan daiteke, edo ikasgela bateko talde bat, edo ikastetxean eginkizun espezifikoetarako lehendik dagoen talde bat (haurren batzordea, ingurumen-gaietarako batzordea, bitartekaritzako taldea). Taldea osatutakoan, lehenbizi elkar ezagutzeko saioak egitea proposatzen dugu, talde-kohesioa eta lankidetzaren lana sustatzeko.

Proposatutako jarduerak

A) Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun. Informazio teorikoa grafikoki eta sormenez helarazteko fitxak.

B) Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea. Entzute Kluba sortzeko dinamika-multzo bat da. Dinamika horien xedea da talde eragile horren kohesioa eta antolaketa bultzatzea, hezkuntza-komunitatean gauzatuko diren jarduerak sustatu ditzaten eta haien jarraipena egin dezaten. Talde horren eginkizunei dagokienez, hauek proposatzen ditugu: ikastetxean erreferente eta eragile giltzarriak identifikatzea, diagnosis egitea ikastetxean eta kanpaina koordinatzea.

C) Arretaz Entzun kanpainaren web-plataforman alta ematea. Plataforma digitalean parte hartzeko argibideak eskuragarri daude; plataforma horren bidez, esperientzia arrakastatsuen informazioa eta emaitzak elkarri jakinaraziko dizkiote. Sareko lankidetzaren lana sustatzea lortu nahi da.



Motibazioa eta komunikazioa

Kanpainaren prozesu osoan garatu beharreko zeharkako fase bat da. Entzutearekin zerikusia duten motibazioko eta informazioko jarduerak hezkuntza-komunitatean gauzatzean datza; jarduera horiek teorikoak (edukiak zabaltzeko) eta praktikoak (hezkuntza-komunitatean garatzen diren jardueretan parte hartzea eta inplikatzeko) dira.

Proposatutako jarduerak

A) Entzutearen artea ereingo dugu! Talde-kohesioa eta lankidetzak sustatzeko, eta kanpainari ekiteko motibazioa eta jarrera egokia sustatzeko jarduera; horretarako, ekitaldi sinboliko bat baliatuko da: komunitatean landare bat ereitea.

B) Entzuten entrenatuko gara! Dinamika-multzoa, hezkuntza-komunitateko eragileak entzute aktiboan trebatzea bultzatuko duena, lankidetzak lanaren eta kanpainaren edukien bidez.

C) Ikusi, irakurri eta entzun! Kanpainarekin zerikusia duten ideiak, goiburuak, ekintzak, informazioa eta gainerakoak jakitera ematen laguntzeko materiala diseinatzea xede duen proposamena. Horretarako, hainbat hizkuntza-mota eta infografia pertsonalizatua baliatuko da: kanpainaren eranskailuak, pantaila-babesleak diseinuak, Kraft paperarekin egindako txartelak, irudiak esaldiekin batera, marrazkiak eta argazkiak, mezu erakargarriak...

D) Artearen bidez entzuten dugu. Sormenezko proposamena, talde-lanean sortutako ideiak, gogoetak, informazioa eta proposamenak abiapuntu hartuta. Adibidez: zineforuma, antzerki-foruma.

E) Entzuteko txokoa. Ikastetxean gune bat bilatzeko proposamena, kanpainako jardueren buruzko informazio nagusia erakusgai jartzeko; hau da, gune eroso eta erakargarri bat, topaketarako eta elkarrekin hitz egiteko. Leku horrek abegitsua izan behar du, albisteak, esperientziak eta bitartekoak (ipuinak, filmak, musika, jokoak, etab.) elkarri trukatzeko. Gune horretan, komunitatearen ideiak jaso ahal izango dira, **Entzuteko postontzi** bat jarrita.

Hasierako egoeraren analisia egiteko hainbat jarduera-mota proposatzen dira, horretarako abiapuntu hartuta zer pertzepzio duen komunitateak entzuteko moduari buruz (bai norbanakoaren jarrera, bai taldearena). Gaiak generoaren eta kultura-aniztasunaren ikuspegitik ere identifikatuko dira. Behin jarduera horiek egindakoan, informazio guztia bildu behar da, aztertzeko, gogoeta egiteko eta ekintza-plan bat garatzeko.

Proposatutako jarduerak

Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea. Familia, ikasle eta irakasleentzako testa, harremanen eta komunikazioko trebetasunen arloan norberak aktiboki nola entzuten duen hausnartu dezan, batetik, eta aktiboki entzutera bultzatzen duten elementuez, egiturez eta eragileez taldean hausnartu dezaten, bestetik.

Entzun diezaguten... sortu egin behar da. Xedea da hainbat dinamikaren bidez bizipenetan izandako emozioei buruz gogoeta egitea eta emozio horiek poemekin eta argazkiekin sormenez adieraztea.

Askatasunez hitz egitea, entzuteko konpromisoa hartzea. "Askatasunez hitz egiteko mikroa" sortzean datza jarduera, hau da, ideiak, bizipenak, proposamenak eta abar modu anonimoan eta askatasunez adierazteko tresna bat sortzea. Esate baterako, irratsaio bat egitea, podcast-ak grabatzea, etab.

Aldaketak planifikatzeko mapa. Diagnosien emaitzen analisia egitean datza, datuen bidez eta datu horien esanahiari buruzko gogoetaren bidez, eta jardueren eta beste alternatiba batzuen proposamenak egitea eta ekintza-plan batean jasotzea.

Diagnosi-faseko emaitzek aukera ematen dute hezkuntza-komunitatean entzute aktiborako zer arazo dauden jakiteko. Emaiza horiek kontuan hartuta, problematika horri buruz sensibilizatzea xede duten ekintzak proposatzeaz gain, entzute aktiboa hobetzeko ekintzak abian jartzea ere proposatzen da.

Proposatutako jarduerak

Entzute aktiborako dekalogo. Ekintzara jauzia emateko eta aurreko faseetan hautemandako arazoak konpontzeko gomendioak bilduko dira.

Besteek entzun diezaguten, ez da beharrezkoa oihu egitea. Sentsibilizazioko eta mobilizazioko kale-ekintzak, ikusleei edo bertatik pasatzen direnei hausnarrarazteko.

Testu idatzien bidez entzun diezaguten, batzuetan idatzi baino zerbait gehiago egin behar da. Fanzineak diseinatzean datza; zehazki, kanpainaren prozesuarekin zerikusia duen informazioa emateko (Entzute Klubaren sorrera, diagnosien emaitzak, motibatze jarduerak, ekintza-proposamenak, etab.). Prozesu guztia fanzine batean jaso daiteke, gero hezkuntza-komunitatean edo ikastetxeak antolatutako azokaren batean banatzeko; izan ere, informazioa emateaz gain, baliagarria da sensibilizatzeko eta hautemandako arazoak konpontzea xede duen ekintza edo kausa batekin bat egitera bultzatzeko.

Motibazioko fasean deskribatutako beste ekintza batzuk. Lehen ere adierazitako jarduerak edo ekintzak egitea, hala nola pantaila-babesleen diseinuak, Kraft paperarekin egindako txartelak, irudiak esaldiekin batera, marrazkiak eta argazkiak, mezu erakargarriak eta Entzuteko txokoaren sorrera.



Ebaluazioa

Ebaluazio jarraitua egitea proposatzen da, eta, aurreko faseak gauzatu eta gero, prozesuaren ebaluazioa egitea ere bai, jakiteko zer emaitza lortu diren, zer aurrerapen egin diren eta zer hobetu den hezkuntza-komunitatean aktiboki entzutearekin zerikusia duten alderdietan. Ebaluatu daitezke, besteak beste, prozesua orokorrean, hautemandako arazoak konpondu ondorengo ikaskuntzak eta etorkizuneko erronkak. Educok amaierako ebaluazioa egingo du, aurreko ebaluazioak biltzeko aukera ematen duten hainbat tresnaren bidez; besteak beste, alderdi hauen balorazioa egingo da: entzutearekin lotutako emaitzak eta hobekuntzak, plataforma birtualaren funtzionamendua, komunikazioko kanpainaren nondik-norakoak eta inplikaturako eragileekiko harremana.

Proposatutako jarduerak

Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez. Oraindik ere egiteko daukaguna. Jardueren eta Entzute Klubeko kideek nagusiki ikastetxean egindako kanpaina-prozesuaren ebaluazio jarraitua egiteko dinamikak dira.

Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa. Diagnosiaren fasean egindako testa berriro egitea proposatzen da, ekintza-plana abian jarri ondoren izandako aldaketak eta hobekuntzak baloratu ahal izateko. Aldaketa nabarmenak izanez gero, aldaketa horiek bildu eta grafiko baten bidez erakuts daitezke.

Amaierako ebaluazioa. Educok amaieran galdetegi bat jarriko du eskuragarri prozesuan parte duten hezkuntza-komunitateetako solaskideentzat (irakasleak, erakunde bazkideetako hezkuntza-taldeak, etab.). Emaitza horiek oso baliagarriak dira lorpenen berri izateko, izandako arazoez ikasteko, erronka berriak hartzeko eta hurrengo ekintzetan zer hobetu daitekeen kontuan hartzeko.

4. FASEA

Amaiera, ospakizuna eta ikasitakoa partekatzea

Lortutako emaitzengatik prozesuari amaiera pozik emateko eta ikasitakoa partekatzeko, lorpenen berri ematea eta lortutakoa ospatzea xede duten jarduerak gauzatzea proposatzen da.

Proposatutako jarduerak

Kale-ekintza/komunikazioa. Educok, kanpainen parte hartu duten ikastetxeekin bat egitera gonbidatzeko, hainbat jarduera-mota diseinatuko ditu. Esate baterako: kale-ekintzak, parte-hartzaileen arteko topaketak, komunikazio-kanpaina sare sozialetan eta iragarkiak. Arretaz Entzun plataforma birtualaren bidez, proposamen horien guztien berri emateaz gain, haietan parte hartzera gonbidatuko dira pertsona guztiak.

Jende guztiak entzun diezagun. Lorpen nagusien eta ikasitako guztiaren berri emateko, memoria bat edo artikulua bat argitaratzea. Hainbat formatu proposatzen dira: sare sozialetan, irratiari eta abar lorpenak eta ikasitako guztia partekatu ahal izateko moduko audio-memoria bat; ereserki edo abesti bat; etab. Horiek guztiak Arretaz Entzun plataforma digitalean partekatuko dira.



Proposatutako jardueren eta ekintzen eskema

Taula batean laburbildu ditugu kanpainaren garapenerako faseetan proposatutako jarduerak nagusiak, bai eta jarduerak horiek norentzat diren, zer helburu duten eta curriculumeko zer arloarekin lotuta dauden.

INFORMAZIOA ETA ENTZUTE KLUBAREN ANTOLAKETA			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculumeko (edo ezagutzako) arloak
Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun	Hezkuntza-komunitate guztia	Fitxak, informazio teorikoa grafikoki eta sormenez helarazteko, lortu nahi dugunari buruzko mezu argien bidez.	- Hizkuntzak - Naturaren Zientziak (Lehen Hezkuntza) - Biologia (Bigarren Hezkuntza) - Gizarte Zientziak
Talde-lanean, gehiago lortuko dugu (Entzute Kluba sortzea)	Entzute Kluba: haur eta nerabeak, eta erreferentziazko pertsona helduak (irakasleak, jangelakoak edo erakundeko hezkuntza-taldea, testuinguruaren arabera)	Pertsona helduz eta neska-mutikoz osatutako talde eragile baten talde-kohesioa, lankidetzaren eta berrikuntzaren lana sustatzeko dinamika-multzoa. Kanpaina eta kanpainaren edukiak (berez entzutearen eta arretaz entzutearen arteko aldeak, etab.) sustatuko dituen taldearen kohesioa lantzeko.	- Hizkuntzak - Arte Hezkuntza - Balio Sozial eta Zibikoak
Arretaz Entzun kanpainaren web-plataforman alta ematea	Irakasleak Entzute Kluba	Sareko lankidetzaren lana sustatzeko, esperientzia arrakastatsuen informazioa eta emaitzak elkarri jakinaraziz. Kanpainaren inguruan ikastetxeak edo erakundeak zer lantzen duen jakitera ematea.	- Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Hizkuntzak - Balio Sozial eta Zibikoak

MOTIBAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA (zeharkakoa izan daiteke prozesu osoan)			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculumeko (edo ezagutzako) arloak
Entzutearen artea ereingo dugu!	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin Eskolako baratzetan lan egiten duten familiak eta ikasleen Gurasoen Elkarateak	Helduen eta haur eta nerabeen arteko lankidetzaren lana, talde-kohesioa eta lankidetzaren sustatzea xede duen ekintza; baliagarria da, halaber, motibatze eta arretaz entzute aldera jarrera egokia sustatzeko ekintza sinboliko gisa.	- Naturaren Zientziak - Biologia (Bigarren Hezkuntza) - Balio Sozial eta Zibikoak
Entzuten entrenatuko gara!	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Lankidetzaren lanaren eta kanpainaren edukien bidez entzute aktiboa sustatzeko dinamika-multzoa.	- Hizkuntzak - Gizarte Zientziak - Gorputz Hezkuntza - Balio Sozial eta Zibikoak - Arte Hezkuntza
Ikusi, irakurri eta entzun	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Haur eta nerabeek arretaz entzuteari buruz hezkuntza-komunitateari helarazi nahi dizkieten mezu giltzarriak identifikatzeko jarduerak. Zenbait modutan helaraz ditzakete (esaldiak, argazkiak, marrazkiak, etab.).	- Musika - Hizkuntzak - Balio Sozial eta Zibikoak - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Arte Hezkuntza - Gizarte Zientziak
Artearen bidez entzuten dugu	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Sormeneko proposamena, talde-lanean sortutako ideiak, gogoetak, informazioa eta proposamenak abiapuntu hartuta. Adibidez: zineforuma eta antzerki-foruma.	- Hizkuntzak - Arte Hezkuntza - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Gorputz Hezkuntza - Musika - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak
Entzuteko txokoa, partekatze leku bat	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Ikastetxean gune bat bilatzeko proposamena, kanpainako jarduerari buruzko informazio nagusia erakusgai jartzeko; horrez gain, jendea elkartzeko eta beren artean hitz egiteko, guneak eroso eta erakargarria izan behar du. Entzuteko postontzia sortzea.	- Arte Hezkuntza - Hizkuntzak - Biologia (Bigarren Hezkuntza) - Naturaren Zientziak (Lehen Hezkuntza) - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak

DIAGNOSIA ETA ANALISIA			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculumekeo (edo ezagutzako) arloak
Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea	Hezkuntza-komunitate guztia	Familia, haur nahiz nerabe, eta irakasleentzako testa, hausnarrarazteko nolakoa den norberaren entzute aktiboa harremanen eta komunikazioko trebetasunen arloan, batetik, eta hausnarrarazteko zein elementu, egitura eta eragilek bultzatzen duten taldean entzute aktibora, bestetik.	- Hizkuntzak - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Matematika - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak
Entzun diezaguten... sortu egin behar da	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Hainbat dinamikaren bidez, bizipenetan izandako emozioei buruzko hausnarketa sormenez adieraztea; esaterako, argazki-poemen eta salaketa-argazkien bidez.	- Hizkuntzak - Arte Hezkuntza - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak
Askatasunez hitz egitea, entzuteko konpromisoa hartzea	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Askatasunez eta modu anonimoan hitz egiteko mikroa, ideiak, bizipenak, proposamenak eta abar adierazteko. Esaterako, irratsaio bat egitea edo podcast-ak grabatzea.	- Arte Hezkuntza - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Hizkuntzak - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak
Aldaketak planifikatzeko mapa	Entzute Kluba	Diagnosien emaitzak aztertzea, eta ekintza-plana diseinatzea, proposamenak planifikatuta.	- Hizkuntzak - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak

EKINTZA (diagnosiaren ondoren) (MOTIBAZIOKO ETA KOMUNIKAZIOKO ekintzez gain)			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculumekeo (edo ezagutzako) arloak
Entzute aktiborako dekalogoia	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Ekintza-plana zehazten eta aurreko faseetan hautemandako arazoak konpontzen lagunduko duten gomendioen bilketa.	- Hizkuntzak - Balio Sozial eta Zibikoak
Besteek entzun diezaguten, ez da beharrezkoa oihu egitea	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Sentsibilizatzea eta mobilizatzea xede duten ekintzen proposamenak, ikusleei edo bertatik pasatzen direnei hausnarrarazteko.	- Arte Hezkuntza - Musika - Gorputz Hezkuntza - Antzerki-taldeak (eskolaz kanpokoak) - Balio Sozial eta Zibikoak
Testu idatzien bidez entzun diezaguten, batzuetan idatzi baino zerbaite gehiago egin behar da	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin	Fanzine bat egitea kanpainaren prozesua jasota gera dadin, gero hezkuntza-komunitatean banatu ahal izateko, eta haren bidez informatzeko, sentsibilizatze eta hautemandako arazoak konpontze aldera ekintza edo kausa batekin bat egitera bultzatzeko.	- Hizkuntzak - Arte Hezkuntza - Teknologia (Bigarren Hezkuntza) - Gizarte Zientziak - Balio Sozial eta Zibikoak



EBALUAZIOA (zeharkakoa izan daiteke prozesu osoan)			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculume (edo ezagutzako) arloak
<i>Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez. Oraindik ere egiteko daukaguna</i>	Entzute Kluba	Ikastetxean egindako jardueren eta gauzatutako kanpaina-prozesuaren balorazioa egitera bultzatuko duen ebaluazio jarraituko dinamika batean datza.	Denak
<i>Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa</i>	Hezkuntza-komunitate guztia	Diagnosiaren fasean egindako testa berrito egitea proposatzen da, izan diren aldaketak baloratzeko. Aldaketa nabarmenak izanez gero, aldaketa horiek bildu eta grafiko batez erakutsiko dira.	Denak
<i>Amaierako ebaluazioa</i>	Entzute Kluba	Amaierako galdetegia prozesuan parte duten hezkuntza-komunitateetako solaskideentzat (irakasleak, erakunde bazkideetako hezkuntza-taldeak, etab.).	Denak

AMAIERA, OSPAKIZUNA ETA IKASITAKOAK PARTEKATZEA			
Jarduerak ZERTAN DATZA?	Norentzat NORK HARTUKO DU PARTE?	Helburuak/edukiak ZERGATIK? ZERTARAKO? ZEREKIN DU LOTURA?	Curriculume (edo ezagutzako) arloak
<i>Kale-ekintza/komunikazioa</i>	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin eta kanpoko kolaboratzaileekin. Jende guztia	Kanpaina amaierako ekintza, parte hartu duten ikastetxeekin bat egitera gonbidatzeko.	Denak
<i>Jende guztiak entzun diezagun</i>	Entzute Kluba, hezkuntza-komunitatearen laguntzarekin. Jende guztia	Oinarri teorikoaren dimentsio guztietan du lotura.	Denak



PROPOSATUTAKO JARDUEREN DESKRIBAPENA

1.FASEA

Informazioa eta Entzute Klubaren antolaketa

1.A Hasi aurretik... irakurri, pentsatu eta entzun

Jardueraren deskribapena	Informazioa grafikoki eta sormenez erakusten dituzten horma-irudiak, kanpainaren eduki eta mezu nagusiak jakitera emateko Bost horma-irudi bisual eta erakargarriren bidez, kanpainaren edukiekin zerikusia duten gaiak partekatzeaz gain, entzute aktiboari buruzkoak ere partekatuko dituzte; entzute aktiboa zenbait ikuspegitatik, hala nola biologia, harremanak, gizarte-hezkuntza, haurren eskubideak eta herritartasun globala. Fitxa horiek inprimagarriak direnez, ikastetxean denek erabiltzen dituzten gune zein lekuetan edo auzo zein udalerriko leku jendetsuenetan jar daitezke. Oso baliagarriak izan daitezke, halaber, kanpainako jarduerak eta dinamikak egitean erabiltzeko, Entzute Klubeko kideei banatzeko eta oinarritzko edukiak sare sozialen bidez igortzeko, partekatzeko eta zabaltzeko.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita. 1., 2., 3., 4. eta 5. fitxak



1.B Talde-lanean, gehiago lortuko dugu: Entzute Kluba sortzea

Jardueraren deskribapena	1- Entzute Kluba osatzen duen taldea motibatze eta ahalduntze dinamika. Lehenbizi, taldekideek pentsatu behar dute beren ustez zer egiteko duten gaitasun berezia edo zertan diren trebeak. Adibidez, jendaurrean hitz egiten, ideia originalak pentsatzen, marrazten edo idazten, teknologiak erabiltzen (bideo- edo argazki-kamerak, edizioko programak, sare sozialak...), partekatze moduko material bereziren bat baduten, etab. Gero, taldekideak biribilean eseriko dira, bakoitzak paper zuri bat eta bolaluma bat hartuta. Bakoitzak orrialde batean idatzi behar du nola ikusten duen bere burua, bai eta lehen adierazitako gaitasun, trebetasun eta baliabideei buruzko xehetasunak ere. Behin denek eskatutakoa idatzitakoan, orriari buelta eman eta nork bere izena idatziko du orrialdearen goialdean. Orria, izena eta zuriunea dituen aldetik ikusten dela, kidez kide joango da, ordulariaren orratzen noranzkoan. Kide bakoitzak egokitu zaion orrian idatzi behar du pertsona horri buruz duen iritzia: zer trebetasun edo jarrera positibo dituen edo taldean lan egiteko zer ekarpen egin dezakeen. Eta azkenik, behin denek denei buruzko iritzia idatzitakoan eta nork bere orria jasotzen duenean, gainerakoek zer idatzi duten irakurriko du, eta beste aldean lehen bere buruari buruz idatzitakoarekin alderatu. Nahi izanez gero, orri guztiak irakur ditzakete eta balioetsi taldeak zenbateko potentziala duen. Dinamika honek aukera ematen du taldea motibatze, eta taldekideen gaitasunak eta jarrera positiboak agerian uzteko. Komeni da jarduera hori egin ondoren, proposatutako gainerako dinamikak ere garatzea, hala nola Entzuten entrenatuko gara!
Material hau behar da	Orri zuriak eta bolalumak
Jardueraren deskribapena	2- Entzute aktiboa sustatuz, ekintzak planifikatzeko eta erabakiak hartzeko dinamika. Lehenbizi, Entzute Klubak elkartu egin behar du, gida honen eta online plataformaren bidez proposatutako jarduerak aztertzeko. Eta gero, talde horrek ibilbide-orri bat prestatuko du, zer jarduera egin nahi dituzten planifikatzeko. Ibilbide-orri hori taula baten bidez zehaztuko dute, taldeak alderdi hauei buruzko erabakiak adostuta: zer ekintza nahi ditugu egin? Noiz egingo ditugu? Nor arduratuko dira ekintza horietaz? Norentzat dira ekintzak? Nork hartuko du parte? Zer baliabide eta laguntza behar ditugu ekintza antolatzeko?
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 6. fitxa
Jardueraren deskribapena	3- Entzute Klubeko kideak aurkezteko dinamika. Behin Entzute Kluba osatutakoan eta lantaldea sendo eta finkatuta dagoenean, parte hartzeko eta aktiboki entzuteko beren gain zer konpromiso hartu dituzten eman behar dute jakitera. Horretarako, taldearen argazki dibertigarri bat atera dezakete, autorretratuak jarritz, beren bizitzako gorabeheren argazkiak erakutsiz, etab. Argazkien horma-irudi hori ikastetxean jar dezakete, denek ikusteko moduko lekuren batean, haien jardunaren berri izan dezaten ikastetxean. Argazia jartzeko leku aproposa Entzuteko txokoa izan daiteke (aurrerago dituzu azalpen gehiago).
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 7. fitxa

1.C Web-plataforman alta ematea

Jardueraren deskribapena	Web-plataforman alta ematea. Arretaz Entzun kanpainak webgunea du, eta han egongo dira ikusgai albiste nagusiak, proposatutako ekintzak, deskargatu daitekeen hezkuntza-materiala, etab. Horrezaz gain, parte hartzen duten ikastetxeen arteko hartu-emanetarako gune bat ere badu, bai eta beste gune bat ere, entzunak izateko eskubidearekin lotutako nazioarteko proiektuetako (Educok lan egiten duen herrialdeetan garatutakoak) jardunbide egokien adibideak aurkezteko. Entzute Aktiboaren Komunitatean parte hartu nahi izanez gero, argibideak plataforma honetan daude: https://activalaescucha.org/
Material hau behar da	Bideo tutoriala, webgune honetan: https://activalaescucha.org/



Motibazioa eta komunikazioa

T.A Entzutearen artea ereingo dugu!

Jardueraren deskribapena	Ekitaldi sinboliko bat da, kanpainan parte hartzera bultzatzeko eta kanpainan landuko diren gaien inguruan sentsibilizatzeke. Zera proposatzen dugu: Entzute Klubak "entzute aktiboaren artea ereiteko" ekitaldi sinboliko bat antolatzea ikastetxean edo inguruan, eta, horretarako, oregano-haziak ereitea. Zergatik oreganoa? Landare usaintsu hori otitis-arazoak sendatzearekin lotzen delako. Entzutea eragozten diguten bakterioez (jarrerez) blokeatuta daukagu belarria. Oreganoak hantura hertu egiten du eta bakterioen kontrako propietateak ditu. Izenaren jatorria greziera da, eta "mendien poza" esan nahi du. Guk esanahia aldatu, eta "ikastetxeen poza" bilakatuko dugu, eta zaintzeaz arduratuko gara. Ekitaldi sinbolikoa gauzatzeko, ezinbestekoa da ereiteko edo landatzeko eremu egokia bilatzea, beharrezko materiala biltzea (haziak, landareak, substratua, palak) eta landareentzako etiketak egiteko tailerra prestatzea aldezturik.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 8. fitxa

T.B Entzuten entrenatuko gara!

Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboa balioesteko eta horretan entrenatzeko dinamikak: 1- Atsotitzen edo aipuen adibideak. Entzutearekin lotutako atsotitzen, aipuen edo topikoen zerrenda bat hartuko da abiapuntu (atxikita daude adibideak, baina talde dinamizatzaileak, nahi izanez gero, beste batzuk bilatu ditzake). Saioa dinamizatzeaz arduratuko den pertsonak edo taldeak "iritzi-termometroa" dinamika baliatuko du. Lehenbizi, atsotitzak, aipuak edo topikoak irakurtzeko txandak antolatu behar dira. Haietako bakoitza irakurritakoan, gainerakoei esango zaie gelaren alde batean jartzeko ados badaude, eta gelaren beste aldean jartzeko ados ez badaude. Bien artean, tarteko iritzia dutenak ere jar daitezke. Gero, pertsona bakoitzak arrazoitu egin behar du zergatik dagoen ados edo ez dagoen ados atsotitzarekin, aipuekin edo topikoarekin. Eta azkenik, nork bere argudioak azaldu ondoren, parte-hartzaileak lekuz aldatu ahal izango dira, entzundako argudioen ondorioz iritzia aldatzen badute. Txanda amaitutzat emango da, parte-hartzaileen iritzia aldarazteko moduko argudiorik ez dagoenean. Saioaren amaieran, nahi izanez gero, denen artean hitz egin dezakete izan dituzten sentsazioez, sentitu dutenari buruzko iritziez, egoera polemikoenez, aldeko iritzi gehien izan dituzten argudioez, arrazoitzeak arazoez, etab.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 9. fitxa



Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboa balioesteko eta horretan entrenatzeko dinamikak: 2- Paisaia bat deskribatzea eta interpretatzea. Parte-hartzaileek binaka jarri behar dute. Bikote bakoitzeko kideetako bati horma-irudi bat emango zaio (izan daiteke aldizkari batetik moztutako irudi bat, argazki bat edota Interneten aurkitutako paisaia baten irudia); horma-irudi hori ezin izango du bikoteak ikusi, eta azken horri, bestalde, orri zuri bat eta bolaluma bat emango zaizkio. Behin hori egindakoan, bikote bakoitza gainerakoetatik pixka bat aldenduko da, eta leku lasai batean eseriko dira, bizkarka, bakoitzak eskuetan zer duen besteak ikusten ez duela. Gero, horma-irudia duen kideak ahoz deskribatuko ditu irudiaren edo argazkiaren xehetasun guztiak. Beste kideak azalpenak ahalik eta ondoen entzuten saiatu (hasieran, hitzik esan gabe eta ezer galdetu gabe), eta orri zurian irudikatuko du. Marrazten ari den pertsonak, marrazkia osatze aldera, Arretaz Entzun kiteko 10. fitxan proposatzen diren galderak (Haurrentzako filosofiaren praktika dialogikoa dute oinarri) edo antzekoak egin ahal izango dizkio. Behin jarduera amaitutakoan, denak elkartuko dira, eta marrazkiak txandaka aurkeztuko dituzte, jatorrizkoekin alderatzeko eta denen artean hitz egiteko izandako sentimenduez, zailtasunez, pentsamenduez, sentsazioez, etab. Eta azkenik, arretaz entzuteko gomendioen zerrenda bat osatuko dute. Jarduera honek sormena, arrazoiketa eta arretaz entzutea sustatzen du. Oharra: Jarduera konplexuagoa eta interesgarriagoa egite aldera, irudi surrealistikak baliatzea proposatzen dugu. Surrealismoa XX. mendearen hasieran sortu zen mugimendu artistiko eta literarioa da, eta pentsamendu askea gauzatzeko modu gisa sortu zen. Adierazpen artistikoen bidez, irrazionala eta onirikoa den oro sustatzen da, pentsamendu automatikoa eta inkontzientea oinarri hartuta. Gobernu totalitarioen testuinguruan erabili zuten zenbait autorek surrealismoa, adierazpen-modu alternatibo gisa.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 10. fitxa
Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboa balioesteko eta horretan entrenatzeko dinamikak: 3- “Tomatea!” antzerki-jolasa. Gorputz-espresioa jarduera bat da. Parte-hartzaileek biribilean jarri behar dute, zutik. Parte-hartzaileetako bakoitzari emozio baten izena idatzita duen txartel bat emango zaio, edo Emozioen Gorpila esaten zaiona egin dezakezue (Plutchik psikologoak proposatutakoa egokituta; ikusi Arretaz Entzun kita, 11. fitxa). Nork bere txartela duenean, txandaka hasiko dira jolasten. Denek esan behar dute “tomatea!” hitza, baina egokitu zaion emozioari dagokion aurpegiera, intonazioa, gorputz-mugimendua edo bururatzen zaiona antzetzuz. Gainerako parte-hartzaileek zer emozio adierazi nahi duen asmatzen saiatu behar dute. Hasieran, komeni da emozio oinarritzkoenak adierazten saiatzea (haserre, atsekabea, tristura, zoriontasuna edo poza, sorpresa, beldurra), eta gero espezifikoak (hala nola frustrazioa, harridura, asperdura eta harrotasuna). Egin txanda bat baino gehiago. Jolasa amaitutzat eman baino lehen, hitz egin denon artean emozioak adierazteko edo besteen emozioak hautemateko zailtasunez. Nahi izanez gero, esan parte-hartzaileei kontatzeko noiz sentitu duten bizitzan jolasean adierazi behar izan dituzten emozioak. Jarduera hau entseguetarako erabiltzen dute Stanislavsky metodoa baliatzen duten antzerki-taldeek; metodo horrek, hein handi batean, benetako bizipenetan sentitutako emozioetan oinarritutako prozesu psikologikoak aktibatzea du xede.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 11. fitxa

Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboa balioesteko eta horretan entrenatzeko dinamikak: 4- “Istorioak lotzen” jolasa. Parte hartuko duten taldekideek biribilean eseri behar dute. Dinamizatzaileak erabakiko du zer ordenatan arituko diren. Hastea egokitu zaiona hasiko da asmatutako istorio bat kontatzen. Behin 3-5 esaldi kontatutakoan, dinamizatzaileak “stop” esan behar du, eta beste bati jarraitzeko esango dio. Baldintza da aurrekoak esan duen azken esaldia errepikatu behar duela, istorioa asmatzen jarraitzeko. Duda-mudan hasten bada, isilik 3 segundo baino gehiago egoten bada edo jarraitu ezin badu, biribiletik irtengo da eta hura izango da dinamizatzailea. Istorioa kontatzeko lehenbiziko txanda horretan pertsona bakarra geratzen denean istorioa kontatzen jarraitzeko, istorioari amaiera emateko esango zaio. Behin jolasa amaitutakoan, hitz egin denon artean, nahi izanez gero, dinamikaren nondik-norakoaz, arretaz entzuteko eta esaldiak buruan gordetzeko zailtasunez, etab.
Material hau behar da	Ezer berezirik ez
Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboa balioesteko eta horretan entrenatzeko dinamikak: 5- Jolasa: “Ereduari jarraitu”. Jolas hau entzutea zer den ikusaraztean datza; hau da, adieraztean belarriekin bakarrik ez dugula entzuten, baizik eta begiak eta garuneko prozesuak ere baliatzen ditugula. Taldekideek biribilean eseri behar dute, eta dinamizatzaileak denek ondo ikusteko moduko leku batean jarri behar du. Behin denak prest daudenean, dinamizatzaileak esango die arretaz entzuteko eta ahots gora esango duen ekintza egiteko. Adibidez: egin txalo bi aldiz, jaso beso bat, ukitu sudurra, egin kriskitin hatzekin, etab. Benetan entzuten ari diren egiaztatzeko, dena delako ekintza ahots gora esatean, beste oso bestelako ekintza bat egingo du; esate baterako, “egin txalo!” esan eta eskuak buru gainean jarri. Taldekide askok egingo du, ziurrenik, azken ekintza hori, txalo egin orde. Jolasa amaitutakoan, oso une aproposa da azaltzeko entzuten ari garenean ez dugula entzumena soilik baliatzen, eta arretaz edo aktiboki entzuteko horregatik dela beharrezkoa kontzentrazioa.
Material hau behar da	Ezer berezirik ez

T.C Ikusi, irakurri eta entzun!

Jardueraren deskribapena	Entzute aktibora bultzatzea xedetat hartuta, mezuak edo goiburudun argazkiak zein marrazkiak sortzea. Bi zatiz osatutako ekintza bat garatzean datza; lehenbizikoan, neska-mutikoek entzute aktiboari buruzko mezu giltzarriak identifikatu behar dituzte, eta bigarrenean, goiburu eta mezu horiek hainbat formatu bisualetan jaso ondoren, hezkuntza-komunitateko zenbait lekutan jarri, atentzioa emateko. Formatu-mota asko balia daitezke, hala nola hormetan jartzeko moduko eranskailuak eta horma-irudiak, ateen eskutokietan jartzeko Kraft txartelak eta informatika-gelako ordenagailuen pantaila-babesleak.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 12. fitxa

T.D Artearen bidez entzuten dugu

Jardueraren deskribapena	1- Zineforuma. Entzute aktiboarekin eta/edo neska-mutikoe eta nerabeek entzunak izateko eta berei eragiten dieten gaietan aintzakotzat hartuak izateko duten eskubidearekin nolabaiteko lotura duten filmak proiektatu eta eztabaida-saio bat antolatzean datza. Hona hemen horretarako baliagarriak izan daitezkeen zenbait film: • <i>Mejor imposible</i> (James L. Brooks, 1997). Adin guztietarako • <i>Inside Out</i> (P. Docter eta R. del Carmen, 2015). Adin guztietarako • <i>Hamabi gizon erruki gabe</i> (Sidney Lumet, 1957). Adin guztietarako • <i>Patch Adams</i> (Tom Shadyac, 1998). Adin guztietarako • <i>Estrellas en la tierra</i> (Aamir Khan, 2007). Adin guztietarako • <i>El indomable Will Hunting</i> (Gus Van Sant, 1997). Adin guztietarako • <i>Billy Elliot</i> (Stephen Daldry, 2000). Adin guztietarako • <i>Oliver Twist</i> (Roman Polansky, 2005). 13 urtetik gorakoentzat • <i>Evelyn</i> (Bruce Beresford, 2002). 7 urtetik gorakoentzat • <i>El pequeño salvaje</i> (Francois Truffaut, 1970). Adin guztietarako • <i>Rebelde</i> (Kim Nguyen, 2021). 12 urtetik gorakoentzat • <i>El Rey de las Máscaras</i> (Wu Tranming, 1996). Adin guztietarako Filmak proiektatu aurretik komeni da gainbegiratzea zer adinetakoentzat izan daitezkeen egokiak, eta filmak proiektatzeko eskubideen inguruko zer baldintza bete behar diren, areto-motaren eta proiektzio-ezaugarrien arabera (ikusle-mota ororentzat, eremu pribatua, etab.) Behin filma ikusitakoan, taldeari deigarriak gertatu zaizkion alderdiei buruzko solasaldia antola daiteke: istorioa garatzen den testuinguruaren analisisa (kokapen geografikoa, alderdi kulturalak, protagonisten adina, sexu-nortasuna, etab.); entzute aktiborik izan ez duten egoerak, gaizki-ulertuak, komunikatzeko zailtasunak, eskubideen-urraketa; entzute aktiboa hobetzeko aukera eskaintzen duten egoerak, pertsonaien jarrera positiboak, konponbide berritzaileak, etab.
Material hau behar da	Zinema-proiektagailua. Egile-eskubideen gaiei buruzko kontsulta egin SGAEn (http://www.sgae.es)
Jardueraren deskribapena	2- Antzerki-foruma. Parte-hartzaileetako bakoitzak orri zuri batean idatzi behar du, bakarka, bere ingurunean entzute aktiborik ez dagoela iruditzen zaizkion egoera jakinak. Labor-labor deskribatu behar du orri zurian zer gertatzen den, zer pertsonaren artean gertatzen den eta zer lekutan (adibidez, irakasleen eta ikasleen artean, ikasleen artean, institutuko atarian, irakasgai bateko eskola-saioan, azterketaren baten berrikusketa egitean, etab.). Gero, dinamizatzaileak orri guztiak jasoko ditu, eta parte-hartzaileen artean boluntarioak eskatuko ditu. Boluntario horiei esango die binaka jartzeko, eta bikote bakoitzari orri bat edo bat baino gehiago emango dizkio, haien artean bat aukeratu eta egoera antzezteko. Dinamizatzaileak azalduko die zenbat minutu dituzten egoera horien antzeztanak prestatzeko, eta behin prestatuta dituztenean, egoerak antzeztuko dituzte. Bigarren aldiz antzezteko eskatuko die, eta ikusten ari diren gainerako taldekideetako bati esango dio bat-batean eta naturaltasunez sartzeko eszenan, ahal duen neurrian gatazka konpontzen laguntzeko eta elkarri aktiboki entzun diezaioten eskatzeko. Egoera guztiak hirugarren parte-hartzailearekin antzeztutakoan, dinamizatzaileak beren artean hitz egin dezaten bultzatu behar du, besteak beste, eztabaidagai hauek izan ditzaten: azaleratu dituzten gaiak, erakutsitako portaerak, hirugarren pertsonaren parte-hartzea, hark egoki edo desegoki adierazitakoak, etab. Dinamizatzaileak egoki irizten badio, arbelean idatz dezake zer gaik duten lotura entzute aktiboarekin eta zer gaik ez (Arretaz Entzun kiteko 2. fitxa erabiliz, adibidez). Ideia horiek oso baliagarriak izan daitezke ingurunean entzute aktiboa hobetzeko ekintza-planean hedapeneko eta komunikazioko beste jardura batzuk gehitzeko.
Material hau behar da	Atrezzoak prestatzeko materiala (etxean dituzten gauzak erabiliz), orri zuriak eta bolaluma. Arbela. Arretaz Entzun kita: 2. fitxa

T.E Entzuteko txokoa, partekatzeko lekua

Jardueraren deskribapena	Arretaz Entzun kanpainarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa bildu eta erakusgai jartzea. Entzuteko txokoa oso leku atsegina izan daiteke solasaldietarako eta albisteak zein bitartekoak trukatzeko (ipuinak, filmak, musika, jolasak, goiburuak, etab.). Horretarako, ezinbestekoa da ikastetxeak leku bat edukitzea zenbait gauza jartzeko, besteak beste hauek: aulki erosoak edo besaulki bat, mahai bat, apalak eta erakustoki edo ohar-taula bat. Espazio hori oso aproposa izan daiteke komunitatearen ideiak ezagutzera emateko, hala nola komunitatean arretaz entzuteari buruzko hasierako diagnosiko emaitzen erakusketa egiteko. Jarduera hau plataforma digitalean ere antola daiteke. Komunitatearen ideiak eta iritziak biltzeko oso elementu baliagarria izan daiteke Entzuteko postontzia. Horretarako, material berrerabiliarekin, batez ere kartoiarekin, postontzi bat diseinatzea proposatzen dugu. Esate baterako, Lehen Hezkuntzako neska-mutikoen taldeetan, entzumena garatuen duten animaliei buruzko ikerketa bat egitea proposa daiteke, inspirazio-iturri erabiltzeko Entzuteko postontziaren diseinuan. Nerabeen taldeetarako, berriz, postontzi-mota bat baino gehiago diseina daitezke, hala nola mezuak bidaltzeko gailu mugikor bat edo tableta bat simulatuz. Entzute Kluba arduratuko da postontzietan jasotako iradokizunen, albisteen edo ideien jarraipena egiteaz, gero lantaldeetan lantzeko.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 13. fitxa Gune bat ikastetxean, iragarki-taula.



2.FASEA


Diagnosia eta analisia

2.A Entzuteko moduaren testa, elkar hobeto ezagutzeko unea

Jardueraren deskribapena	Entzuteko moduaren testa. Diagnosia egiteko tresna bat da, kanpainen entzute aktiboari buruz proposatutako alderdiekin lotutako gaien autoebaluazioa egiteko, bakarka. Hiru test-mota egitea proposatzen dugu: bat irakasleentzat, beste bat neska-mutikoentzat, eta hirugarrena haien familientzat. Bakarkako testaren emaitzek hausnarketa pertsonala sustatzen dute; taldeen datuek eta emaitzek, berriz, taldekako hausnarketa. Egokia litzateke Entzute Klubak diseinatzea diagnosiaren prozesua; hau da, erabakitzea zer taldek egingo duten testa, zehaztea datuak biltzeko nork zer egingo duen, bildutako emaitzak grafikoen bidez eta pertsona-mota bidez xehatuta adieraztea, datuak hedatzeko modua pentsatzea, etab. Jarduera honetako emaitzak, diagnosi-faserako proposatutako izaera kualitatiboko beste jarduera batzuetako emaitzekin batera, oinarritzakoak dira ekintza-plana diseinatzeke, eta, beraz, hautemandako arazoetako batzuk konpontzeko. Kanpainen amaieran, behin hobetzeko ekintza-plana egindakoa, komeni da testa berriro egitea, aldaketak eta hobekuntza posibleak ebaluatzeke.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 14. , 15. eta 16. fitxak

2.B Entzun diezaguten... sortu egin behar da

Jardueraren deskribapena	Argazki-poemen eta salaketa-argazkien erakusketak, irudi-antzerkia dinamika abiapuntu hartuta. Hala norbanakoari nola taldeari kezka eragiten dion egoera bat salatzeke jarduera. Irudi baten bidez egiten da salaketa (argazki bat edo marrazki bat izan daiteke), ondoan poema bat edo testu bat duela, egoera azaltzeko. Lehenbizi, entzutearekin lotuta zer egoerak eragiten dien kezka pentsatu behar du taldeak. Behin egoera pentsatuta, galdetu behar zaie ea posible den egoera plastika-lanen baten bidez adieraztea (marrazki bat, plastilinaz edo buztinez egindako modelatua, material birziklatuarekin egindako eskultura, etab.). Gero, plastika-lanari argazki bat atera, inprimatu eta hari poema bat, izenburu, goiburua edo esaldi motibatzaile bat gehitu behar diote, xedetzat hartuta kasuan kasuko gaiak ikusleen arreta bereganatzea.
Material hau behar da	Orri zuriak, errotuladoreak, plastilina, buztina, argazki-kamera, etab.



2.C Askatasunez hitz egitea, entzuteko konpromisoa hartzea

Jardueraren deskribapena	Askatasunez hitz egiteko mikroa. Adierazpen-askatasuna eta entzutean errespetua erakustea sustatzen duen jarduera bat da. Modu bat baino gehiago daude antolatzeko. Esate baterako, ekitaldiren bat prestatu edo ikastetxean lehendik egiten den ekitaldi bat aukeratu (inauteriak, ikasturte-amaiera, udaberriko festa...), eta mikro bat jarri, bozgorailu eta guzti. Egun horretan, jarri abestiak; zehazki, gai hauei buruzkoak direnak edo gai hauekin lotutakoak: entzutea, komunikazioa, giza eskubideak, bakea eta antzekoak. Eta abesti batetik besterako tartean, utzi minutu batzuk nahi duenak adierazteko askatasun osoz, mikrora hurbilduta, berdinen artean entzutearekin edo haur eta nerabeek berei eragiten dieten gaiez entzunak izateko duten eskubidearekin lotutako egoera positiboak edo gustuko ez dituenak. Jarduera hau antolatzeko beste modu bat da podcast-ak grabatzea, ideiak eta pentsamenduak adieraziz, eta, gero, Entzute Klubari helaraztea. Hala eginez gero, audioak modu anonimoan partekatu ahal izango dira.
Material hau behar da	Musika-ekipoa, mikrofonoak eta audioak igortzeko posta elektronikoko helbidea.

2.D Aldaketak planifikatzeko mapa

Jardueraren deskribapena	Aldaketak planifikatzeko mapa. Jarduera honek aukera ematen du diagnosiko jardueretan lortutako emaitzei buruzko gogoeta egiteko. Honako honetan datza jarduera: datu guztiak bildu, antolatu, erakusgai jarri, sortutako gaiei buruz hausnartu, informatu eta sentsibilizatzeko ekintzak proposatu eta hezkuntza-komunitatean jarrerak aldarazi. Lan-fitxa baten bidez, honako hau proposatzen da: 1- Identifikatzea zein diren gustuko ditugun alderdiak (balioespeneko begirada) eta aldi berean komunitatean indarguneak direnak, eta ikustea hala jarraitzea nahi dugun edo hobetzeko aldaketa txiki bat eginez berritu nahi ditugun. 2- Identifikatzea zein diren gustuko ez ditugun eta, beraz, konpondu edo desagerrarazi egin behar diren alderdiak (kritika konstruktiboa); izan ere, horiek izango dira lortu beharreko erronka nagusiak. Aurreko bi paragrafoetako zerrendak abiapuntu hartuta, proposatzen da lortu nahi duten entzute-komunitatea imajinatzeko (etorkizuneko ametsa). Gero, eskatzen zaie amestutako entzute-komunitatea lortzen lagunduko duten ekintzak pentsatzeko eta programatzeko, ekintza horiek hezkuntza-komunitatean gauzatzeko. Horretarako, komeni da jakitea gida honetako hurrengo fasean zer jarduera edo ekintza proposatzen diren, baloratu ahal izateko helburuak, aukerak, baliabideak eta abar. Ekintzei edo jardueri buruzko ideia-jasa egitea proposatu ondoren, adostu dezakete zein gauzatuko dituzten, jarduera horiek planifikatu ahal izateko Arretaz Entzun kитеko 6. fitxaren laguntzarekin (Talde-lanean, gehiago lortuko dugu. Entzute-komunitatea lortzeko ibilbide-orria).
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 6. fitxa eta 17. fitxa Paper jarraitua, errotuladoreak, post-itak.



3. FASEA

Ekintza

3.A Entzute aktiborako dekalogo

Jardueraren deskribapena	Hezkuntza-komunitatean entzute aktiboa sustatzeko dekalogo egitea. Diagnosi-faseko jarduera guztiak egin ondoren eta behin datuak eta emaitzak aztertutakoan, bilera bat egin daiteke, horiez guztiez hausnartzeko, hitz egiteko eta ekintzak planifikatzeko. Ekintza horietako bat izan daiteke zerrenda batean biltzea ekintzara jauzia emateko eta aurreko faseetan hautemandako arazoak konpontzeko gomendioak eta proposamenak. Dekalogo moduan, kartelen bidez eta diseinu erakargarriak baliatuz egin daiteke; azken batean, helburua da ulerterraza izatea eta hainbat modutan hedatu ahal izatea (kartelak korridore eta ikasgeletan, Entzuteko txokotan, kanpainaren web-plataforman...).
Material hau behar da	Kartelak, errotuladoreak.

3.B Besteek entzun diezaguten, ez da beharrezkoa oihu egitea

Jardueraren deskribapena	Kale-ekintzak. Kale-ekintzen helburua komunikabideentzako deigarriak izatea da, eta, horretarako, irudi bitxia, ikusgarria, parte-hartzaile asko bilduko dituen edo salatzea xede duena sortu behar da. Oso ekintza gomendagarriak dira “albiste bilakatzeko”. Hona hemen zenbait adibide: elkarretaratzeak, errebindikazioko ibilaldiak, futbol-partidak, ekitaldi sinboliko bat, performance bat eta antzekoak. Oso baliagarriak dira mezua bat helarazteko bai helduei eta bai neska-mutiko eta nerabeei, kasuan kasuko ekintza nori bideratuta dagoen kontuan hartuta. Halako kasuetan, oso garrantzitsua da mezua ondo zehaztea, hala nola goiburua edo izenburua original bat asmatzea. Eragotzi egin behar da, halaber, gaitzespena eragin dezaketen hitzak erabiltzea (biraoak, hitz ulergaitzak, etab.). Kale-ekintzetan elementu deigarriak erabili ohi dira: abesti gogorrazak, eta eskatzen dena adieraziko duten egiturak, marrazkiak edo ikonoak. Ekintza hori antolatzeke, aukeratu leku eta euskarri egokia: plaza bat eta megafonoak, hari musikala gure mezua merkataritza-zentroetan jartzeko, ikastetxeko atarian abesteko goiburuak prestatzea, etab. Edonola ere: - Ez eragin inoiz kalteak ez hiri-altzarietan eta ez ingurumenean. - Ziurtatu ez dela behar udalaren baimena, espazio publikoa erabili behar baduzue. - Sortze-prozesua grabatu eta sare sozialetan parteka dezakezue, biral bihurtu dadin saiatze aldera. - Prestatu ondo ekitaldian behar izango duzun materiala: pankartak, megafonoa, eskulanak, objektu deigarriak, elastikoak (kolore berekoak, serigrafiadunak, etab.). - Kontuan izan egoerak eta ezusteko posibleak (ordu-garai horretan kalean atzera-aurrera dabilen jende-kopurua, egun horretan udalerrian beste albiste garrantzitsuren bat baden, eguraldiaren iragarpena, etab.). - Ziurtatu kale-ekintzan sor daitezkeen irudiak bat datozela helarazi nahi duzun mezuarekin. Bestela, komunikabideetan agertuko zarete, baina ez nahi zenuten helburuarekin. Educoren “Érase una Voz, No pases, Actúa” mobilizaziorako gidatik hartua. https://www.educo.org/descarga/eraseunavoz/guia-movilizacion-erase-una-voz.pdf
Material hau behar da	Taldeak diseinatzen duen ekintzaren arabera (ikus “Érase una Voz, No pases, Actúa” mobilizaziorako gida).

3.C Testu idatzien bidez entzun diezaguten, batzuetan idatzi baino zer bait gehiago egin behar da

Jardueraren deskribapena	Fanzineak egitea. Fanzineak aldizkari amateurak dira, eta modu autonomoan sortzen dira, autokudeatuta, eta egile-eskubideetatik aske argitaratzen dira; sortzen dituen pertsonak bere intereseko gaiari buruzko fotokopiak edo jatorrizko lanen muntaketak erabiltzen ditu fanzineak egiteko. 'Fanzine' hitza ingeleseko 'fan' eta 'magazine' hitzetatik dator, eta zera esan nahi du: kasuan kasuko gaiaren "jarraitzaileen aldizkaria"; Louis Russell Chauvenet estatubatuarrek sortu zuen terminoa 1940. urtean. Hezkuntza-komunitatean entzuteko moduaren diagnosiaren emaitzak eta jardura-proposamenak komunikabide horren bidez adieraz daitezke, sortzen dituzten pertsonen sormenean eta askatasunean oinarrituta, eta abiapuntutzat hartuta ideia, pentsamendu eta sentimendu pertsonalak eta gainerakoak. Argitalpen-mota honetan ez da soilik idazten, irudiak moztu eta itsasten dira, marrazkiak egiten dira, hainbat motatako materiala itsasten da, eta mekanismo dibertigarriak eta berritzaileak ere diseina daitezke, atentzioa emateko. Fanzineak egin ondoren, banatu egin daitezke, bai hezkuntza-komunitatean, bai salmentaguneetan eta bai Arretaz Entzun kanpaina eta hezkuntza-komunitatearen beste ekintza batzuk ezagutzera emateko antolatzen den azoka batean.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 18. fitxa





Ebaluazioa

TE.A Identifika dezagun zer ikasi dugun entzutearen bidez. Oraindik ere egiteko daukaguna


Jardueraren deskribapena	Entzute aktiboari buruzkoak erregistratzeko dinamikak: entzute-jarrera. Komeni da Entzute Klubak egiten dituen bileretan edo dinamika eta jolasei buruzko saioetan pertsona-talde batek baloratzea lan-saio bakoitza, akta moduko fitxa edo oharren fitxa bat erabiliz (ikusi Arretaz Entzun kita). Zenbat alderdi baloratu, hainbeste pertsona aritzea proposatzen da. Alderdi hauei erreparatu behar zaie: Denbora: pertsona bakoitzak hizketan zenbat denbora ematen duen baloratzeko. Adibidez, erreparatu behar du nork hitz egiten duen gehien edo gutxien, neskak edo mutilak diren, ikasleak edo helduak diren (irakasleak, familiakoak...), ezaugarri jakinen batekoak diren, hala nola ordezkariak, zuzendaritza-taldekoak, agintaritza dutenen taldekoak diren, edo normalean hitz egiten ez duen eta hitz egitera animatu den pertsona lotsatia den, etab. Gorputz-jarrera eta emozioak: taldean nagusi diren emozioen oharrak, nola aldatzen diren emozio horiek eta zer pertsona edo edukirekin lotzen diren jaso behar da. Kontuan hartu daiteke, halaber, gorputz-espresioa. Esate baterako, parte hartzen ari diren pertsonak, gorputz-espresioaren arabera, adi dauden, aspertuta, burua beste leku batean duten, nekatuta, haserre, gogotsu dauden, etab. Hizkuntza: zenbait gauza hautemateko, hala nola heldultismoak, genero-alorreko alderdiak, errespetu faltak, ea hizkera inklusiboa kultura-aniztasuna kontuan hartuta erabiltzen duten, etab. Nahi izanez gero, hitzaldietan tonua eta intentsitatea nola aldatzen den, eta zer pertsona edo edukirekin lotzen den ere jaso daiteke fitxan. Ideiak: zenbat gai edo ideia lantzen diren. Esate baterako, baloratzea ea bilera eta jarduera gai edo alderdi bakar bati buruzkoa den eta ea behin eta berriz gauza bera errepikatzen den, edo, aitzitik, ea ikuspuntu bat baino gehiago kontuan hartuta ideia berriak sortzen dituen taldeak. Informazio hori guztia saioko fitxan jaso daiteke; fitxa horrek sarrera biko taula bat du, nork zenbat denbora hitz egin duen jasotzeko. Taula horretan bertan, behatzaileak ikonoak edo oharrak gehitu ditzake. Saio bakoitzaren amaieran, parte-hartzaileek aukera dute jasotako datuez hitz egiteko, baloratu beharreko alderdiak kontuan hartu eta gertatutakoa baloratzeko, hurrengo ekintzetan entzutea hobetze aldera ideiak proposatzeko eta hurrengo bilera edo saioetarako jardute-arauak proposatzeko.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 19. fitxa

TE.B Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa

Jardueraren deskribapena	Entzuteko moduaren testa. Aldaketaren ebaluazioa. Behin diagnosi- eta ekintza-jarduerak egindakoan, parte hartu duten taldeek entzuteko moduaren testa berriro egin dezaten proposatzen da. Hartara, landutako gaiekiko jarrera zenbateraino aldatu den ebaluatu ahal izango da. Aldaketa horien emaitzak, aldaketarik izan bada, grafikoen bidez adieraz daitezke, alderdi positiboak baloratzeko, eta, horrezaz gain, beste ekintza batzuk proposatzeko, baldin eta ikusten bada aldatu ez diren adierazleak edo balio negatiboko adierazleak daudela, hau da, hobera egin ez duten adierazleak daudela.
Material hau behar da	Arretaz Entzun kita: 20. fitxa

TE.C Amaierako ebaluazioa

Jardueraren deskribapena	Galdetegia. Arretaz Entzun kanpainarekin zerikusia duten helburuen lorpen-maila jakite aldera, Educoc galdetegi bat diseinatu du, eta prozesuaren amaieran jarriko du eskuragarri web-plataformaren bidez. Galdetegiak hau du xede: ebaluazio jarraitua egiteko diseinatu diren beste tresna batzuen osagarri izatea, ebaluatu ahal izateko ea lortu diren kanpainaren helburu nagusiak. Aldaketak, lorpenak eta izan duen eragina ebaluatuko dira, honako hauei dagokienez: • Hezkuntza-komunitateko bizikidetzan izandako hobekuntzak, halakorik izan bada • Ikastetxean, eta, oro har, komunitatean izandako parte-hartzearen maila • Irakasleengan eragindako aldaketak eta ikaskuntza • Prozesuarekiko gogobetetze-maila • Kanpainaren metodologiari eta baliabideei zein materialari buruzko balorazioa
Material hau behar da	Web-plataforman eskuragarri dagoen informazioa: https://activaalaescucha.org/



4. FASEA

Amaiera, ospakizuna eta ikasitakoa partekatzea

4.A Kale-ekintza/komunikazioa

Jardueraren deskribapena	Kale-ekintza/komunikazioa. Educok zenbait ekintza-mota diseinatu eta proposatuko ditu, kanpaina-amaierako ekimenetan parte hartzera gonbidatzeko. Helburua lorpenak eta ikasitakoa ospatzea, eta parte hartu duten hezkuntza-zentro guztien artean sentsibilizazioko mezuak partekatzea da. Baina badu xede, halaber, horren berri ematea komunikabideei, erabakiak hartzen dituztenei (hala nola toki- eta autonomia-administrazioen arduradunei eta erakunde publikoei) eta, oro har, gizarteari. Arretaz Entzun plataforma birtualaren bidez informatu eta gonbidatuko dugu ekimenetan parte hartzera. Mota honetako ekintzak proposatuko ditugu, besteak beste: kale-ekintzak, parte-hartzaileen arteko topaketak, komunikazio-kanpainak sare sozialetan eta prentsasurekoak. Bestalde, hezkuntza-zentro bakoitzak, nahi izanez gero, beste ekintza batzuk diseinatu eta gauzatu ahal izango ditu, ospatzeko, informazioa jakitera emateko, eta aldarrikapena egiteko ikastetxean, komunitate-ingurunean, auzoan edo udalerrian.
Material hau behar da	Web-plataforman eskuragarri dagoen informazioa: https://activalaescucha.org/

4.B Jende guztiak entzun diezagun

Jardueraren deskribapena	Ikasitakoaren memoria. Ikus-entzunezko formatuan audio-memoria bat egitea proposatzen da, lorpenak eta ikasitakoa partekatzeke sare sozialetan, irratian eta beste komunikabide batzuetan. Educok lagundu egingo du lorpenak eta ikasitako guztiaren berri emateko memoriak eta artikuluak argitaratzen. Zenbait formatu proposatzen dira: batetik, entzute aktiboaren inguruan lortutakoak eta ikasitakoa azaltzeko audio-memoriak, ikus-entzunezko formatuan, lorpenak eta ikasitakoa partekatzeke sare sozialetan, irratian eta beste komunikabide batzuetan; eta bestetik, abesti bat konposatzea, Educok erritmoa eta musika jarrita, eta letrak zein edukiak (bai eta irudiak ere), berriz, kanpainako jardueretan parte hartu duten taldeek asmatuta. Egindako lan guztiak Arretaz Entzun web-plataformaren bidez partekatuko dira.
Material hau behar da	Web-plataforman eskuragarri dagoen informazioa: https://activalaescucha.org/



KANPAINAREN BESTE BALIABIDE BATZUK

Arretaz Entzun kita

Arretaz Entzun kita gida honen material osagarria da. Kit horrek dituen **fitxa praktikoetan kanpainaren edukiei buruzko oinarritzko informazioa dago jasota, baita jarduerak egiteko** (hala nola dinamikak, jolasak, tailerrak, oharrak jasotzeko eta ebaluazioa egiteko fitxak) **proposamen zehatzak ere**. Material hori guztia inprima daiteke, ikasleei eman ahal izateko, eta eskuragarri egongo da web-plataforman.

Komeni da gida hau kontsultatzea Arretaz Entzun kitean proposatutako jarduerak egin aurretik, horien testuingurua ezagutzeko eta proiektuko zer fasetan egin jakiteko.



Online plataforma

Arretaz Entzun kanpainaren web-plataforma eremu birtual bat da, eta hau da web-orria: <https://activalaescucha.org/>

Plataforma horretan daude Arretaz Entzun kanpainaren albiste nagusiak; zehazki, landu beharreko gaiekin eta ekintza-proposamenekin lotuta daudenak, eta deskargatzeko eskuragarri dauden hezkuntza-materialei buruzkoak (Arretaz Entzun gida, Arretaz Entzun kita); kanpaina garatzeko material lagungarria ere badago. Horrezaz gain, plataformak badu alde zuzeneko izena ematen duten parte-hartzaileentzat soilik den gune bat: Entzute Aktiboaren Komunitatea. Gune horren bidez komunitateko kideen arteko komunikazioa erraztu eta bultzatu nahi da, bai eta kideek bizipenak eta ikaskuntzak elkarri jakitera ematea ere. Bestalde, beste gune bat ere izango du, entzunak izateko eskubidearekin lotutako nazioarteko proiektuetako (Educo lan egiten duen herrialdeetan garatutakoak) jardunbide egokien adibideak aurkezteko.

Entzute Aktiboaren Komunitatea gunean erregistratu eta parte hartu nahi izanez gero, argibideak web-plataforman daude eskuragarri.



Bibliografia eta webgrafia

Artikuluak eta saiakera-liburuak

Albertí, M., eta Pedrol, M. (2017). El enfoque restaurativo en el ámbito educativo. Cuando innovar la escuela es humanizarla. *Educació Social. Revista d'Intervenció Socioeducativa*, 67, 47-72.

Altimir, D. (2010). *¿Cómo escuchar a la infancia?* Octaedro argitaletxea.

Arnstein, S. R. (1969). A ladder of citizen participation. *Journal of the American Institute of planners*, 35(4), 216-224.

Belmonte, L. T. (2005). Filosofía para niños de Mathew Lipman. Un análisis crítico y aportaciones metodológicas, a partir del Programa de Enriquecimiento Instrumental del profesor Reuven Feuerstein. *Indivisa. Boletín de estudios e investigación*, (6), 103-116.

Bernet, J. T., eta Cámara, A. M. N. (2011). Participación, democracia y formación para la ciudadanía. Los consejos de infancia. *Revista de educación*, 356, 23-43.

Casas, F. (1995). La participación de los niños y niñas en la sociedad europea. *Infancia y sociedad*, 31(32), 37-49.

Codina, A. (2007). Saber escuchar: Un intangible valioso. *Intangible capital*, (3), 176-201.

Davies, B. (2014). *Listening to children: Being and becoming*. Routledge.

Faber, A., Mazlish, E., eta Coe, K. A. (1989). *Cómo hablar para que los niños escuchen y cómo escuchar para que los niños hablen*. Edivisión.

Ferrada, D., eta Flecha, R. (2008). El modelo dialógico de la pedagogía: un aporte desde las experiencias de comunidades de aprendizaje. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 34(1), 41-61.

Fielding, M. (2011). La voz del alumnado y la inclusión educativa: una aproximación democrática radical para el aprendizaje intergeneracional. *Revista Interuniversitaria de Formación del profesorado*, 25(1), 31-61.

Fisher, R. (2013). *El diálogo creativo en el aula*. Ediciones Morata.

Freire, P. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI argitaletxea.

Hart, R. A. (1992). *Children's participation: From tokenism to citizenship*.

Kaplún, M. (2010). *Una pedagogía de la comunicación* (10. liburukia). Ediciones de la Torre.

Johnson, D.W. (2016). *La controversia constructiva. Argumentación, escucha y toma de decisiones razonada*. Biblioteca Innovación Educativa.

Motta-Ávila, J. H. (2017). La actitud de escucha, fundamento de la comunicación y la democracia en el aula. *Cuadernos de Lingüística Hispánica*, (30), 149-169.

Rosenberg, M. (2000). *Comunicación no violenta*. Acanto argitaletxea.

Sepúlveda, C., eta Valdés, A. M. (2008). La escuela como espacio de participación democrática. *Documento Valores UC*.

Soler, A., eta Roger, C. (2020). *Niños sin etiquetas*. Paidós Ibérica argitaletxea.

Torralba, F. (2009). *El arte de saber escuchar*. Milenio argitaletxea.

Trilla, J., eta Novella Cámara, A. M. (2001). Educación y participación social de la infancia. *Revista Iberoamericana de Educación (OEI)*, 2001, 26. zk., 137-164. or.

Unicef (1989). *Haurren eskubideei buruzko konbentzioa*.

Unicef (2013). Superando el adultocentrismo. *Participación Adolescente Ahora*, 4. koaderno seriea.

Dinamika, jolas eta jardueren buruzko argitalpenak

Boal, A. (2014). *Juegos para actores y no actores* (60. liburukia). Alba argitaletxea.

Carter, D.A. (2009). *Los elementos del Pop-Up*. Combel argitaletxea.

Garaigordobil, M. (2004). *Programa Juego 10-12 años. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 10 a 12 años*. Ediciones Pirámide.

Madero, A., Montero, J. A., eta Sánchez, I. (2014). *Stop Rumores. Manual Antirumor*. Federación Andalucía Acogek argitaratua.

Meana Suárez, T. (2002). *Porque las palabras no se las lleva el viento... Por un uso no sexista de la lengua*. Quart de Pobleteko Udala. Valentzia.

Rodríguez, L. (2011). *Ponele onda. Herramientas para producir radio con jóvenes*. Ediciones La Tribu.

Sátiro, A. (2020). *Jugar a pensar con niños de 3 a 4 años: Guía para educadores*. Ediciones Octaedro.

Smith, K. et al. (2013). *Guerrilla Art Kit*. Paidós argitaletxea.

Helbide interesgarriak Interneten

Educoren argitalpenak:

Gizarte-mobilizaziorako gida: *No pases, actúa*

<https://www.educo.org/descarga/eraseunavoz/guia-movilizacion-erase-una-voz.pdf>

Eraldatzen ikasteko zirrara. Haurren eskubideak eta parte-hartzea.

https://www.educo.org/Educo/media/Documentos/La_Emocion_De_Aprender_edicion-electronica.pdf

Babesteko kita:

<https://www.educo.org/Kit-proteccion>

Zurumurruen aurkako proiektuak:

<https://stoprumores.com/>

Fanzineak egiteko:

http://laaventuradeaprender.intef.es/documents/10184/71399/Guia-LADA_Como-hacer-un-fanzine

<https://www.monmagan.com/fanzines/como-hacer/>

<https://vimeo.com/13016476>

<https://www.youtube.com/watch?v=U1EvDKWI948>

Artikulu, saiakera-liburu eta dinamikei buruzko argitalpen ia denak eskuragarri daude Interneten.

Eta zuk, arretaz entzuten duzu?

Informazio gehiagorako:

activaalaescucha@educos.org www.activaalaescucha.org